



Biotz Alai abesbatzak mende erdia bete du; 50. urtemugan, umeen korua sortu dute. ▶22-23

Jorge Perales algortarrak Berangon zabaldu du bere musika-estudioa, Basauriko gaztetxean zazpi urtean egon ostean. ▶8



hiruka

Uribe Kostako astekaria



71. zenbakia

2016ko
urriaren 6tik
urrlaren 12ra arte

Antzokian zein plazan

Getxoko Antzerki Jardunaldiak izango dira hurrengo aste-akabu bietan. ▶11



«Nireak diren proiektuak ere garatuko ditut»

Nerea Falagan Martin gazte sopoloztarrak Getxophoto jaialdian behar egin du, zazpigarrenez. Horrez gainera, beste hainbat proiektutan jardun du.

Getxophoto jaialdiari amaiera eman zioten joan den urriaren 2an. Nerea Falagan Martin sopoloztarra bertan ibili da lanean, produkzio-taldean. Era berean, beste hain-

bat proiektutan ere parte hartu du azken aldian, berbarako: *Argi* filmean, edo Nazca taldearen bideo-klipean. Gainera, beste proiektu asko garatzeko asmoa dauka. ▶16

Argi Hizkiak-en aurkezpeneko gonbidapena ▶13



Erandioko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak urriaren 17an ekingo dio ikasturteari, hainbat ikastaro eskainiko dituzte. ▶5

Leioako Udalak bederatzi lanbako kontratatuko ditu sei hilabetez; curriculumak Lanbiden alda daitezke, urriaren 17ra arte. ▶6

Lidl kate alemaniarrek ere Berangon bere supermerkatua ezarri gura du, Decathlonek eta Mercadonak legez. ▶9

Munduko Txirrindularitza Txapelketan izango dira Ugeraga, Lointek eta Elkar Kirolak taldeetako txirrindulariak. ▶18

Ikasturteko lehen bilkura

Sexu-esplotazioa eta pertsonen salerosketa salatu ditu Getxoko Udalbatzak iraileko osoko bilkuran.

Irailaren 23an izandako Sexu-esplotazioaren eta Pertsonen Salerosketaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Bozeramaileen Batzak onartutako adierazpen instituzionalaren berri eman zuen Getxoko Udalbatzak joan den irailaren 28an. Adostutako testuan azaltzen da, besteak beste, botere publikoen betebeharrak dela hilketak jazartzea eta delituak saihestea, baina baita eskaeren aurka jardutea ere, «eztabaidea baita eskaerarik gabe ez litzatekeela pertsonen salerosketarik egongo». Alor horretan, jendarte bidezkoago bat lortzeko asmatan, elkarte eta pertsona askok egiten duten lan eskerga azpimarratzeaz gainera, Udalak konpromisoa hartu du sakal eta kontzientzia-kanpainak egiteko, pertsonen salerosketaren arazoaren berri emateko helburuagaz.

Mozioek duten lekukotasun-izaeragaz, hiru onetsi zituzten iraileko oso-

ko bilkuran. Lehenengoan, PPK eskatu zuen Kuskuburu inguruko «eremu gorrian», Zubilletan, aisia- eta kultura-zentro bat egiteko aukera aztertu eta gauzatu dadila. GUKek aurkeztutako transakzio-zuzenketa onartu zen: bizilagunen artean alde aurretik inkesta bat egitea, zentroari zelako erabilera emango lioketen jakiteko. EH Bildu eta Ciudadanos mozioaren alde agertu ziren, eta gobernu-taldea (EAJ eta PSE-EE) abstenitu egin zen. Bes-



Hainbat mozio onartu ziren iraileko osoko bilkuran.

talde, GUKek eskatu zuen mugikortasun murriztua duten pertsonen lekua gordetzeko jaietan eta beste ekitaldi batzuetan (kontzertu, kirol-ekitaldi, eta abar), eta EH Bilduk aurkeztutako

transakzio-zuzenketa onartu zen, eskaera hori beste ezintasun batzuk dituzten pertsonen ere zabaltzeko (itsua, gor, eta abar). Gobernu-taldearen esanetan, ekitaldi gehienetan gurgildun aulkian doazen pertsonentzako eta beraien laguntzaileentzako lekuak gorde ohi dituzte, eta EH Bilduk proposatutako ildoan lanean dabilta; hala, abstenitu egin zen. Era berean, GUKen beste mozio bat onartu zen: Portu Zaharra birgaitze integratuko gunez katalogatzeko Eusko Jaurlaritzari eskaera egin aurreko azterlana aurtan egin dadin eskatzen du. ◀

info+: www.hiruka.eus

Gobernu Irekiaren atala martxan da

Udal webguneko Gobernu Irekiaren atal berria martxan ipini dute daborduko. Horren helburua da Udala herritarrengana hurbiltzea eta herritarren esku ipintzen den informazioa hobetzea, «irisgarriagoa eta errazagoa eginez». Ataria banatuta dago hiru ataletan: Gardentasuna, Partaidetza eta Open Data. Azken horri dagokionez, kudeatzen dituen datu publikoak ikusgai ipini ditu Udalak; gardentasuna, eraginkortasuna, herritarren partaidetza eta garapen ekonomikoa sustatzeko filosofiari jarraituz. ◀

Langabeentzako 70 kontratu bultzatuko ditu Udalak

Udalak Getxoko 70 lanbako kontratatuko ditu, Lanbideren bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak emandako 414.100 euroko diru-laguntza erabiliko du, 2016ko enplegua bultzatzeko lekuko jarduerentzako deialdiari dagozkionak. Kontratazio gehienak bertoko enpresen bitartez egingo dira. Gainontzekoak Lanbide bideratuko ditu, Getxoko Udalarentzat aldi bate-

rako 19 lanpostu betetzeko. Bete behar dituzten hemeretzi lanpostu horiek honako hauek dira: 5 teknikari edo erdi-mailako teknikari, 5 administrari, 7 peoi eta 2 obra-arduradun. Kontratazio gehienak urtea amaitu baino lehenago egingo dituzte, eta kontratuak 2017ko maiatzaren 31a baino lehenago eten egingo dira. ◀

info+: www.getxo.eus

Bizilagunak ekimenean parte hartzeko izen-ematea, zabalik

Bertokoak diren eta atzerriko familiak bazkaltzeko elkarteak izango da *Bizilagunak* ekimenaren helburua, laugarrenez. Horretarako hitzordua azaroaren 13an, domekan, ipini dute Getxoko Udalak, Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Getxoko Etorkinak Plataformak eta Ibilki elkarteak. Ekimenean parte hartuko duten familien etxebizitzetan izango dira bazkariak,

eta topaketa bakoitzean bertoko sendi bat, atzeritik heldutako familia bat eta bazkaria antolatzen lagunduko duen dinamizatzaile bat elkartuko dira. Iaz 52 familiatako 220 lagun inguruk parte hartu zuten, ekimenaren barruan antolatutako 26 bazkaritan, aurreko urtean baino 11 bazkari gehiago izan ziren. ◀

harremanetarako: 644 595 191
getxobizilagunak@gmail.com

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Algortan euskal kultur txoko berria martxan dela badiotsut, ez harritu: AZEBARRITU!!!
Bazkidetu zaitetz eta bizi euskara!

WWW.AZEBARRI.EUS
EUSKAL HERRIA 14-16, ALGORTA

Aze Barri!
euskaltzaleon kultur txokoa

Getxo

Berba egiteko prest?

Berbalagun-taldeetan izena emateko aukera eskainiko du Egizu elkarteak, urri osoan.

Ikasturteagaz batera martxan ipini dira Topagunearen Mintzapraktika egitasmoak. Lekuan lekuko euskara-elkarteak arduratzen dira euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenak ohitura dutenakaz elkartzeaz, berbalagun-taldeak osatzeaz eta antolatzeaz. Getxon, Egizuk bultzatzen du ekimena: astean ordubetez lagun-talde batez elkartu eta euskaraz jarduteko tartetxo bat egitea, hori da egitekoa. «Batzuek beren hizkuntza-gaitasuna hobetzen dute, hizketarako lotsa galtzen dute eta konturatzera euskaraz dabilta berbetan. Besteek, berriz, inguruko euskaltzaleei euskaraz bizitzen lagunduz euskarari ekarpena egiten



Iaz 190 berbalagunek parte hartu zuten 22 taldetan. Ekimena doakoa da. EGIZU

diote», arduradunen esanetan. Hala, urri osoan izena emateko aukera egongo da, eta azaroko lehenengo astean hasiko dira taldeak batzen. Izen-ematea Egizuren webguneko formularioa betez, datuakaz e-mail bat bidaliz edo telefonoz deituz egin daiteke. Iaz 190

berbalagunek parte hartu zuten Egizuk antolatutako 22 taldetan; gainera, kirola egiteko talde berezi bi egon ziren, 30 kideko bizikleta-taldea, eta 15 berbalaguneko mendi-taldea. Guraso-taldeak osatzen ere ahaleginduko dira. ◀

info+www.egizu.eus/berbalaguna edo 619 935 541

Indabadako txartelak barikuan ipiniko dituzte salmentan

Aurton ere Indabada antolatzeko beharreak hasi dira. Indaba-janearako hitzordua hilaren 29an ipini dute, zapatuagaz, San Nikolas plazan. Dena prestatzeko herri-bilerak egiten dabilta, edonor hurrera daiteke. Aste honetako bilera-eguna hilaren 6a izango da, eguena, 18:30ean; barikua jai-eguna delako. Ostera, hurrengo asteetan, barikuetan batuko dira, aipatutako ordu berean, eta beti San Nikolas plazan. Txartelak ere bariku honetan, hilak 7, ipiniko dituzte salgai, hurrengo tabernetan: Ajuria, Hator eta Baster. 8+1 euroko prezioa dute, euro bat «iazko isuna ordaintzen laguntzeko izango da». 300 txartel egongo dira denera eta egunean bertan ere erosteko aukera egon liteke, lehenago agortzen ez badira; ostera, «aurretiaz erostea eskertuko» luketela adierazi dute antolatzaileek. 17. edizio honetan ere «bertoko produktuek» prestatuko dituzte indabak. ◀

GETXO
XXXIV ANTZERKI
JARDUNALDIAK
JORNADAS DE
TEATRO 2016
Urria-October
7-16

7 ostirala
viernes

19:00 **TRAS LA FRONTERA**
Plataforma Tirante (castellano)
San Nikolas Plaza (Algorta)

8 larunbata
sábado

13:00 **HERRIKO JAIK**
Patxin eta Patxin (euskaraz)
San Nikolas Plaza (Algorta)

20:00 **HEROIAK** Txalo (euskaraz)
Escuela de Música (Areeta)

9 igandea
domingo

13:00 **GEAR** Matxalen Bilbao (danza)
HRK (EXTRACTS) Ertza (danza)
San Nikolas Plaza (Algorta)

18:00 **ROBANDO MAGIA** Txalo (castellano)
Escuela de Música (Areeta)

14 ostirala
viernes

21:00 **SU À FEU** Deabru Beltzak (testu barik)
San Nikolas Plaza (Algorta)

15 larunbata
sábado

13:00 **ONGI ETORRI FINDEMUNDO!!**
Trapu Zaharra (euskaraz)
San Nikolas Plaza (Algorta)

20:00 **LA FLAQUEZA DEL BOLCHEVIQUE**
K Producciones (castellano)
Escuela de Música (Areeta)

16 igandea
domingo

13:00 **FUNES VAN** The Funes Troup (sin texto)
San Nikolas Plaza (Algorta)

18:00 **MARIKIXKUR ETA HIRU HARTZAK**
Glu Glu (euskaraz)
Escuela de Música (Areeta)



Horrez gain, igandetan / Además cada domingo.
ANTZERKI ARINA / TEATRO BREVE
Algortako Kultur Etxea - Villamonte, AB
www.teatrobrevegetxo.wix.com/antzerkiarinagetxo



www.getxo.eus/antzerkiarinas




944 914 080 - kulturetxea@getxo.eus - www.getxo.eus

Antolatzaileak / Organizadores



Babesleak / Patrocinadores





Aluzinatzen

URIZ MORENO AJURIA
Puta dinostazu,
txarra balitz legez

Mikromatxismoak ala eguneroko zaplazteko leunak

H orrela izendatu zituen Luis Benino psikoterapeuta argentinarrek egunerokoan ematen diren domeinuzko eta indarkeriazko praktika maskulinoak; ez txikiak ala garrantzi bakoak izateagatik, baizik eta egunerokoan, ia ohar-kabea, gertatzen direlako eta inguru sozialak zilegituak izanda, naturalizatuak daudelako. Gizonezkoek haien nagusitasuna eta kontrola ezartzeko eta mantentzeko darabiltzaten estrategia finak dira, intentsitate baxuko presio-modu ezberdinak, alegia; baina portaera maskulinoak blaitzen dituen pertsona arteko jukutria sorta zabala (jarrerak eta portaerak) barnebiltzen dute. Gizonezkoek euren genero-posizioa mantentzeko aurrera daroatzaten mikroabusu eta mikroindarkeriez ari gara, gainontzeko genero indarkeria mota ezberdinen oinarri eta haztegi direnak, jarrera matxisten eta emakumeon zapalkuntzaren iraunarazle eta adierazle, hain zuzen ere.

Beninok mikromatxismo heratsaizaleak, ezkutukoak eta krisizkoak ezberdintzen ditu, eta hainbat jarrera eta portaera sailkatzen ditu: larderia, etxeko-lanetan eta zaintzetan ez parte hartzea, espazio fisikoaren eta denboraren abusua, intimitatearen inposaketa, gizonezkoen «goi-mailako» logikari heltzea, emakumeon zaintzarako gaitasunaren abusua, balio kentzea, paternalismoa, manipulazio emozionala, hiperkontrola, edo biktimismoa dira portaera horien adibideetako batzuk.

Gizonezkoek gizarte heteropatriarkalean dituzten abantailak agerian uzten dituzte praktika hauek ikusgai egiteak eta euren luzatzen diet hausnarketarako gonbitea: zer egin behar duzue zuen domeinuzko ohiturekin aurrez aurre jartzean? Autokritika egiteko eta zuen pribilegio zapaltzaileei uko egiteko prest zaude? ◀

Getxo

Galerien materiala

Begoña Puntako

Galeriak zerez eraiki zituzten badakite; zelan konpondu erabakitzeke lehenengo egitekoa da.

EHUKO ikertzaileek Begoñako Galeriak eraikitzeke erabili zituzten materialak identifikatu dituzte, baita material horiek zerk kaltetu dituen ere; hau da, galerietako materialak zelan hondatu diren eta zerk degradatu dituen. Adituen esanetan, hori lehenengo pauso bat da, «oso-oso garrantzitsua»; izan ere, horiek kontuan hartuta erabakiko delako gero zein material erabili galeriak zaharberitzeko, eta «ea komeni den egungo osagaiei eustea».

EHUren ikerketaren arabera, «sabaia eta fatxadetan, kaltzita eta igeltsua erabili zituzten; alita eta belita ere identifikatu dira, orduan erabilitako zementuaren *clinker* osagai nagusiaren konposatu bi. Goi galerien sabaietako morteroetan kaltzita, kuartzoa, aragonitua eta igeltsua identifikatu dira; aragonitua koraleen oskol eta eskeletoen osagai nagusia da; honenbestez, be-



Urrian ere badaude bisitak: martitzenetik domekara, 12:30ean eta 18:30ean. info+: getxo.eus

rretsi daiteke hondartzako area erabili zela. Behe galerien sabaia hiru mordero geruza ditu: kanpoaldean dagoena zarakar beltz batek estaltzen du gaur egun; hori atmosferako sufre dioxidoak kaltzitari erasanda sortu da. Horrek igeltsuzko mikroegitura bat sortu du, inguruneke ikatz partikulak eta metalak pila ditzakeena». Horrez gainera, galerietako materialen hondatze-ara-

zoei dagokienez, horma eta sabaiei eragiten dieten beste hiru prozesu ere antzeman dituzte EHUko ikertzaileek.

Bestalde, akorduan izan urrian ere galeriak bisita daitezkeela: hilaren 13tik aurrera, martitzenetik domekara, 12:30ean eta 18:30ean; bisitak doakoak dira, euskaraz edo gaztelaniaz, baina aurretik izena eman beharra dago. ◀

lekua gordetzeko: 944 910 800

GETXON AKADEMIAK
ERE EUSKARAZ

EN GETXO LAS ACADEMIAS
TAMBIÉN EN EUSKERA

www.getxo.eus/euskara

Getxo Euzkara Rik Euzkara Rik Euzkara Rik Euzkara Rik Euzkara Rik

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GetxoGas

**GetxoGason
Euskararekin
bat!!**

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Erendio

Nor bere buruaren jabe

Erandioko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak hirugarren ikasturteari ekingo dio urriaren 17an; hainbat ikastaro, aukeran.

Maiatzaren 30era arte iraungo du kurtsoak. Erandioko Udal Berdintasun Arloak zortzi ikastaro antolatu ditu oraingoan, denak doan; honakoak dira gaiak: osasuna, Beldur Barik, autodefentsa, nortasuna, inprobisazioa, hizkuntza ez sexista, norberaren mugak aurkitzea, umeentzako masajea eta afektibotasuna. Euskaraz tailer bakarra dago ziurtatuta, Beldur Barik ildokoa, gazteei zuzendutakoa. Bestalde, gizonezkoentzat bada ikastaro bat, umeentzako masajea eta afektibotasunarena; «erantzukidetasuna» sustatzeko helburua du eta, beharbada, euskaraz egin ahal izango da, eskaera-kopuruaren arabera.

Zortzi ikastaroetatik bost Altzagan izango dira (Bekoa ikastetxean edo Tartanga kiroldegian), bi Astrabuduan (haurreskolan eta Josu Muruetan) eta bat Erandiogoikoan (gizarte-etxean). Ikastaroek iraun bitartean, haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko dute, beti ere ikastaroa hasi baino lauzpabost egun lehenago eskatuz gero. Izen-ematea daborduko zabalik dago eta gura den ikastaroa hasi baino bost egun lehenagora arte egin ahal izango da. Hala ere, tailer denetan leku-kopurua mugatua da eta izena emateko ordena



Autodefentsa-ikastaroaren eta beste tailer denen informazioa HIRUKA.EUSen topa daiteke.

errespetatuko da. Dena den, Erandion erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Inskripzioa posta elektronikoz egin daiteke; edo zuzenean pasa daiteke honako lekuetatik: Altzagan, Bekoa ikastetxean dagoen Berdintasun Zerbitzuren bulegotik; Erandiogoikoan, gizarte-etxetik, 16:00etatik 21:00etara; eta Astrabuduko udal bulegotik.

Berdintasun Arloak azaldu duenez, Eskola zabaldu zenetik, «gero eta

emakume gehiago» erakarri ditu Eskolaren prestakuntza-eskaintzak, apurka-apurka, «erreferentziazko gune» bihurtu da emakumeen topaketa hori Erandion. Eskolak emakumeen jabe-kuntza-prozesuak sustatu gura ditu; «norberaren ikaste- eta kontzientziazio-prozesuetan laguntzeko» eta, «emakumeen sareak ehundu eta parte-hartze soziala bultzatzeko».

izen-ematea: berdintasuna@erandioko-udala.net

«Betaurreko moreak jarriko ditugu?»

Goiko izenburu hori daroan ikastaroa gazteentzat da, Beldur Barik ildoaren barruan dago, eta Naiara Loy sexu-hezitzailea izango da dinamizatzailea. Bertan, hainbat hausnarketa partekatuko ditu Loy: maitasunak ez duela zertan minik eman behar, zeloek harremanaren parte izan behar duten ala ez, generoen desberdintasunaren oinarriak eta harreman erotikoak, besteak beste. Ikastaroa azaroaren 8an hasiko da eta martitzenetan egingo dute, Bekoan, euskaraz, 18:00etatik 19:30era bitartean.

Euskaren aldeko ekimen berri bat: Zapatutan programa

Hilabete honetan ipiniko du martxan Zapatutan ekimen berria Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak; familien arteko harremanetan euskara sustatzeko helburua du. Programa lau urtetik gorako umei begirakoa da, gurasoek edo beste senideek lagunduta. Izenak dioenez, saioak zapatuetan egingo dituzte, 17:00etatik 18:30era, urriaren 22tik abenduaren 17ra bitartean, Altzagan, Astrabuduan eta Erandiogoikoan, txandaka. Izen-ematea daborduko zabaldu dute. Saio bakoitzean, 12-15 umez eta beraien gurasoek edo familiako kideez osatutako taldeak izango dira. Ekintza denak euskaraz izango dira; horrenbestez, umeakaz datozen helduek euskaraz komunikatzeko gai izan beharko dute, tailerrotako harreman-hizkuntza bakarra euskara izango da-eta.

izen-ematea: Erandiokoeuskarazerbitzua.eus
info+: euskara@erandioko-udala.net / 944 890 128



PRESSFOTO - FREEPIK.COM



Euskara Batzordea osatu dute, Erandioko BHI institutu-ko ikasleek, hirugarrenez. Batzorde horrek «ikasturtean zehar euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekintza» antolatu eta aurrera eramateko ardura dauka, hezkuntza-zentrotik azaldu dutenez. © ERANDIO BHI INSTITUTUA

Udalak argiztatu du Astrabuduko behin-behineko aparkalekua

Astrabuduko metro-geltokiaren ondoko behin-behineko aparkalekua prest dago daborduko, Erandioko Udalak jakinarazi duenez. Gune hori egokitzeko, honako lan hauek egin dituzte: argiteria ipini, lurra asfaltatu eta autoak banatzeko marrak margotu, besteak beste. Udalak 226.258,20 euro ordaindu ditu lanengatik eta beste 20.348,57 euro, argiteriagatik. Denera, aparkatzeko 305 leku daude parking horretan, honako ibilgailuetarako: 250 auto, 30 motor, 4 kamioi, 2 autobus, dozena bat furgoneta eta beste 7 leku, mugikortasuna mugatuta daukaten pertsonen ibilgailuetarako. Astrabuduko trafikoaren arazoa arintzeko izan dira aparkalekuaren lanok.

Lutxanako trena ez galtzeko, sakelako telefonoari adi egon!

Euskotrenek sakelako telefonoetarako aplikazioa martxan ipini berri du. Aplikazioak trenbide eta tranbiako linea guztien gaineko ordutegiak, geltokiak edo irteteko geratzen den denbora moduko informazioa emango du; tartean Lutxana-Lezama linearen ingurukoak. Android eta iOS sistema eragileko telefonoak dituztenek jaitz dezakete Euskotreneko aplikazio ofiziala, doan, Google Play eta App Store denda birtualetatik. Bestalde, Euskotrenek jakinarazi duenez, alde berritzailea izango du garraio publikoko gainerako enpresen aplikazioen aurrean: SOS Deiak 112 larrialdietako zerbitzuagaz harremanetan ipintzeko aukera.

info+: Hiruka.eus/erandio

Leioa

Alaine Agirre idazlearen *X hil da* liburuagaz estreinatuko da kluba. BUSTURIALDEKO HITZA

Euskara Irakurle Kluba, urte osoan

Udal Liburutegiak laugarrenez antolatuko du Euskara Irakurle Kluba; hilean behin batuko dira, Kultur Leioan.

Aurton ere, literaturazaleak hilabete bakoitzeko hiru-garren eguaztenean batuko dira, Kultur Leioako lehenengo solairuko hemerrotekan, 19:30ean. Urriaren 19an izango da lehenengo saioa, eta Alaine Agirrearen *X hil da* liburuaren inguruan berba egingo dute, Leioako Udal Liburutegiak jakinarazi duenez.

Hilabete bakoitzeko proposatuko duten liburua irakurrita eroatea gomendagarria bada ere, «ez da derri-gorrezko betekizuna», liburuazaleak azaldu dutenez. «Ondo pasatzeko eta gauza berriak ezagutzeko proposatzen dira liburuok eta, azken finean, solase-rako aitzakiatzat baino ez ditugu era-

biltzen. Horrenbestez, taldea nolakoa den jakin gura baduzu baina ez bazara etortzen ausartzen liburua ez duzula irakurri... galdu beldurrak eta zatoz lasai», aholkatu dute udal langileek.

X hil da, hilabete honetako lana

Alaine Agirrearen liburuko sinopsiak dioenez, «hainbat arrazoi izan ditza-ke maitearen galerak: haren heriotza, ihesa, asperdura, traizioa... bakoitza desberdina, baina denak izugarriak, bakarrik geratzen den maitalearentzat. Herio eta galbide bakoitzaren atze-aurre guztiak zehatz-mehatz aztertzen ditu nobela honetako protagonista eta narratzaileak, intentsitate harrigarria lortzen duten pasarteetan, ikara berberak behin eta berriz exorzizatu, obsesio baten bulkada eutsiezinaz». Gabonetara arteko beste liburu biak honako hauek dira: Juan Luis Zabalen *Txistu eta biok* eta Mircea Cărtărescu idazle errumaniarraren *Erruletazalea*, Jose-mari Sestorainek itzulia. ◀

info+: Kulturleioaliburutegia.blogspot.com

Elikatze-autonomia berbagai, Sortaraziren 20. urteurrenean

Eguenean, urriak 6, elikagai-autonomiaren gaineko formazio-jardunaldi bat hartuko du Kultur Leioak. Ekimenak aztertu gura du gaur egungo gizartearen kontraesan bat: janaria alferrik galdu eta botatzen den bitartean, asko eta asko dira elikagai seguruak eta egokiak lortzeko arazoak dituztenak. Leioa eta Getxoko Sortarazi elkarte erlijiosoak (bere 20. urteurrena da) eta EHUko Urban Erika ikerketataldeak antolatu dute ekimena, Leioako Udalaren laguntzagaz. Izen-ema-tea zabalik dago, leku-kopurua bete arte. Jardunaldian arreta ipiniko diete

Leioako Ostalaritza Eskolaren jardue-ra egokiei, besteak beste. Elikadurari dagokionez, azken hamar urteotan fenomeno deigarri bi garatu dira paraleloki gure jendarte urbanoetan, antolatzaileek azaldu dutenez. Alde batetik, «esponentzialki hazi dira alferrik galdutako elikagaien kopuruak, 180 kilogramo izateraino pertsona eta urteko Europar Batasunean alferrik galdutako elikagaiak». Beste aldetik, «eta zoritxarrez», datu ofizialek adierazten dute europarren lautik batek «zailtasunak dituela modu autonomoan elikadura-osagaiak eskuratzeko». ◀



Lanpostu bitan eskatu dute espezializazioa: argiketaria eta delineaizalea izatea. © LEIOAKO UDALA

Udalak bederatzi langabetu kontratatuko ditu sei hilabetez

Leioako Udalak udalerriko 9 lanbako kontratatuko ditu, 6 hilabetez, 2016ko Tokiko Enplegu Planaren markoaren barruan. Programa bitan parte hartuko dute beren-beregi langile horiek: auzoko laguntzaile-lanetan, batzuek; eta udal azpiegiturak eguneratu eta modernizatzeko lanetan, besteak. Ekimena Lanbidegaz elkarlanean egingo dute, Leioako Behar-gintzaren bitartez. Interesa dutenek

urriaren 17ra arte daukate Lanbide-tik pasatzeko eta euren curriculumak egokitzeko. Proiektu horiek enplegua sustatzera bideratuta daude, eta Leioako garapen sozioekonomikoan eta modernizatzeko eragingo dute. Gainera, bat egingo dute Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016 Enplegu-planaren lekuko ekintzaren helburuagaz, eta emakume zein gizonen arteko berdintasunaren printzipioagaz. ◀

Neska-mutilek zirku-tailerra izango dute, urriaren 14an

Ikasturte berriagaz batera, bueltan da Leioan Barikuetan Jai!, umeentzako zein familientzako jolas, tailer eta ikuskizunen programa euskalduna. Hurrengo jarduera zirku-tailerra izango da, urriaren 14an, barikuan, jakina. Ohi den legez, hitzordua 17:30ean ipini dute, Kultur Leioako arkupeetan. Barikuetan Jai! astialdian euskaraz gozatzeko aukera eskaintzen duen egitas-moa da, Leioako Euskara Zerbitzuak

antolatutakoa. Ume, gaztetxo eta familiei begirakoa da eta barikuro egiten da Kultur Leioako arkupeetan, 17:30etik 19:30era. Egitarauaren barruan ondoko jarduerak egin ohi dituzte: jolasak, eskulanak, tailerrak, sukaldaritza, ikuskizunak, dantzak... Udagoienean eta udaberrian izaten dira ekintzak, eta Eragintza Kultur Erakundeko lau hezitzailek dinamizatzen dituzte. ◀

info+: Barikuetanjai.wordpress.com

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



Sopela

Ondarearen jardunaldiak

Erakusketa, bisita gidatua eta silex-tailerra egingo dituzte Sopelan, Aldundiak antolatutako ekimenagaz bat egiteko.

Europako Kontseiluaren ekimenez sortutako egitasmoagaz bat eginez, Bizkaiko Foru Aldundiak 16 urte daroatza Ondarearen Europako Jardunaldiak koordinatzen. *Etxetik kanpo: migrazioak eta kultura-ondarea* goiburua daroa aurtengo edizioak; 63 udalek, 17 elkarte eta erakunde ofizialek, 17 museok eta 50 kultur elkarte inguruk parte hartu dute egitaraua osatzeko. Ekitaldian artean dago *Silexaren bila* erakusketa, daborduko Kurtzio kultur etxean ikus daitekeena. Historiaurreko pertsonaldeen leku-aldaketak ezagutzea ahal-



Iñaki Libanok silexagaz tresnak egiten erakutsiko du.

bidetuko du esposizioak; Uribe Kostan zein Hego Euskal Herriko beste leku batzuetan aurkitutako silexegaz egindako lanabesen bitartez. Horrez gainera, material hori lantzen ikasteko tailerra eskainiko du Barrikan bizi den Iñaki Li-

bano getxoxtarrak, urriaren 22an. Egun bat lehenago, ibilbide bat egingo dute Muñarrikolandatik, orain dela 5.000 urte bertan bizi ziren pertsonen bizimodu zelakoa zen eta hilobiak zelan eraiki zituzten irudikatzen. ◀

Ekitaldiak

Urriak 20, eguena

09:00 *Tras las huellas de nuestros ancestros* bisita gidatua, Urko kiroldegiko aparkalekutik abiatuta.

Hizkuntza: Gaztelania.

Antolatzaileak: Sopelako Udala eta Berangoko Udala.

Informazioa eta erreserbak: 944 065 519 edo turismo@sopela.eus. Leku-kopurua mugatua da.

Urriak 22, zapatua

11:00 *Una ventana al pasado* silex-tailerra, Kurtzio kultur etxean.

Hizkuntza: Gaztelania.

Antolatzaileak: Sopelako Udala.

Informazioa eta erreserbak: 944 065 519 edo turismo@sopela.eus. Leku-kopurua mugatua da.

Urtarrilaren 6ra arte

Silexaren bila erakusketa, Kurtzio kultur etxeko erakusketa aretoan.

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania.

Antolatzaileak: Sopelako Udala, Barrikaneko Udala eta Arkeologia Museoa.

Informazioa eta erreserbak: 944 065 519 edo turismo@sopela.eus. Leku-kopurua mugatua da.

Skate-pista inauguratu dute, hiru hilabeteko lanen ostean

Hiru hilabete inguru pasa dira lanak hasi zituztenetik, eta pasa den domekan inauguratu zuen Udalak skate-pista, modu ofizialean. «Nazioarte-mailan erreferentea» izatea espero dutela adierazi zuten udal arduradunek. Lehiaketak eta *surfskate* modalitatean (malguki sistema eta biraketa ardatza duten gurpil-oholak) adituen erakustaldiak egon ziren inaugurazio-ekitaldian; Alain Goikoetxea, Danny Leon eta Ian Campbell skater ospetsuak ere bertan izan ziren, eta gurpil-oholaren gaineko euren maisutasuna erakutsi zuten, Captain Jairock-ek musika jartzen zuen bitartean. Arriatera-Atxabiribil hondartzako itsaslabarrean dago skate-pista;



Itsaslabarraren gainean kokatuta dago.

157.000 euroko inbertsioa egin du Udalak hori eraikitzeko. 650 metro koadro baino gehiago dauzka eta altuera desberdineko bi bainuontzi, hasiberriek zein adituek gozatzeko aukera izan dezaten. Pistek 1,20 eta 2,50 metro altuerarako aldatsa dute; hormigoiz eginda eta eskuz leunduta daude. ◀

Udalerriko gabeziez kexatzeko foro bat dago Facebook-en

Abuztuan, *Sopela info* izeneko taldea sortu zuten Facebook sare sozialean, «bizilagun denek herrian gertatzen ari dena jakin dezaten edo, bertan, euren iritzia eta kezak jar ditzaten». Agintari sopoloztarren ustez, ordea, Udalak kexak eta iradokizunak jasotzeko bere ohiko leku eta euskarriak dauzka: arreta-zerbitzua, web orrialdea, sare sozialak, telefonoa, helbide elektronikoa, eta abarrak. «Hortik kanpo, kexatzeko gune desberdinak sor daitezke, baina zuzenena eta eraginkorrena kexa eta iradokizun horiek modu ofizialean bideratzeko, Udalgaz zuzenean harremanetan jarzea da jarraibiderik egokiena», bertoko arduradunen berbetan. ◀

Kreditu-txartelen lapurretaren aurrean, zein neurri hartu

Udaltzaingoak adingabeko bat identifikatu zuen irailaren 21ean, udalerriko bizilagun baten kreditu-txartelaren datuakaz Interneten erosketak egitea egotzita. Kontuak horrela, Internet bidezko erosketak eta kreditu-txartelaren bidez egiten diren ordainketen inguruan, Udalak zenbait aholku eskaini ditu: mota horietako erosketak webgune seguruetan egitea komeni da; kreditu-txartela bistatik ez galtzea, are gehiago atzerrian, txartelaren kopia egin dezaten ekiditeko. Modu berean, lapurreta jazo eta atoan eman behar dituzte txartelak blokeatzeko edo baliogabetzeko beharrezko pausoak lapurreta jasan dutenek, agintari sopoloztarren arabera. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

ARTOLOZAGA ANAIK
Tailerrak
 Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
 Gatzarrine z/g
 94 676 00 13
 94 676 38 14
 www.talleresartolozaga.com

BOSCH Service
 Car Service

Sestaon
 Miguel Servet, 6
 94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

hau herkontzatik
 ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
 info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

Hauteskunde osteko astelehenean

Hauteskunde osteko astelehenean, Marisak, alarguna eta bi seme alabekin, gutun bat jaso zuen etxetik alde egin behar zuela esanez. Hauteskunde osteko egunean, «Marisaren etxetik» hiru kaletara Kutxabanken bizi den izenik gabekoaren ajea izugarrizkoa zen. Ibonek ere ajea zeukan. Urteak aurrera joan ahala ajeak bi egun irauten du. Ostiralean lagunek agurra prestatu zioten astelehenean Australiarako bidea hartuko zuelako.

Ahmedi udako kontratua bukatu zaio eta, uda berriz heldu arte, errutina bihurtu zaion ordu beteko kola egin du Lanbiden. Anek ez du Ahmed ezagutzen, baina ordu berean leku berean antzeko arazoa partekatzen dute.

Unai igandean 24 orduko guardia zeukan, baina lanaldia astelehen goizera arte luzatu zaio. Ospitalea goraino zegoen eta hurrengo txandan ez zegoen jende nahikorik, laneko bajak aspaldi betetzen ez direlako. Karmele Gurutzetara heldu berri da, alabak eskolako patioan orkatila bihurtu duelako. Administraziokoak «*perdón, en castellano*» esan dio.

Hauteskunde osteko astelehenean, batezbesteko polizia gehien duen Europako herrialdean, Iker eta David, gimnasioan, arkaute buruan dutela, hurrengo OPEa prestatzen dade. Bitartean Joxefi, asteleheneko errutinari jarraituz, «Pentsio Dui-nen» elkarretaratzean ertzainez inguratuta dago.

Oskarrek Espainiako kongresuan «*duro y a la encía... De Guindos tuvo la mala suerte de tener un contrato en prácticas por 368.000€ al año en la empresa Endesa*». Aldi berean, Izaskun, alderdikoa betidanik, zinegotzi kargua utzi, eta enpresa publiko bateko zuzendaritzan kokatu dute. Ni neu, langabezian nago. Hauteskunde osteko astelehenean liburu bat idatziko nuke. ◀

Berango

«Hasieran etxean egiten nituen grabazioak»

Basauritik Berangora ekarri du Jorge Peralesek Zarata estudioa. Biltegi zahar bat egokitu du: grabaketa-estudio berri bat eta «profesionalagoa» garatu du bertan algortarrak; *Stay and Job* proiektuak Berangon duen egoitzan, hain zuzen ere.



Berangoko *Stay and Job* proiektuak duen egoitzan eraiki du Zarata estudioa.

IKER RINCON MORENO ▶

Jorge Perales algortarrak Berangon hutsik zegoen lokal bat musika-estudio bihurtu du: Zarata estudioa. Orain dela 7 urte ekin zion musika grabatzeari, Basaurin; tarte horretan, bertako eta Uribe Kostako hainbat talde grabatzeko aukera izan du. Orain, lokala eta materiala berritu ditu.

Noiz hasi zinen zure musika-estudioa garatzen?

Soinu-teknikoa naiz lanbidez, eta kontzertuetako soinu-instalazioak egiteko enpresa batean egiten dut lan. Hala ere, aste-akabuetan lan asko egin arren,

aste barruan denbora libre nuela ikusi eta horri ekin nion. Musikazale amorratua naiz, materiala erosi eta grabazioak egiten hasi nintzen gurasoen etxean; bertan, kantautoreak grabatu nituen, gehienbat. Mundu hori benetan gogoko nuela konturatu nintzenez, estudio handiago bat egiteari ekin nion.

Berangon egon baino lehenago, Basauriko gaztetxean egon zinen...

Bai, hasieran Basauriko Txarraska gaztetxean egon nintzen, bertan bazegoelako lekua. Proiektua aurkeztu nien, eta begi onez ikusi zuten, estudioa garatu nuen. Proiektua erdi-amateurra zen; hala ere, asko ikasi nuen bertan.

Hori 2007an abiatu zen, eta ia-ia gaur arte egon da indarrean.

Zelako esperientzia izan da hangoa?

Oso positiboa, batez ere gauza berriak probatzeko, trebatzeko eta ikasteko aukera izan nuelako. Talde asko grabatu ditut. Hainbat urte eman ditut bertan, baina beti ibili naiz bestelako lokal baten bila, estudio profesionalago bat egin guran. Halako batean, Berangoko *Stay and Job* proiektuagaz topo egin nuen. Gazte ekintzaileentzako ekimen bat da hori, eta bertan nire ideia aurkeztu nuen, harrera ona izango zuelakoan. Hala, bertan dagoen biltegi zahar bat berrizatu dut estudioa egiteko. Urte eta erdi eman dut hori egokitzen, kide batzuen laguntzagaz.

Zer eskaintzen dizu oraingo Berangoko lekuak aurrekoagaz alderatuta?

Fisikoki askoz ere zainduago dago, akustika eta insonorizazioa hobetuta da hemen. Halaber, materiala berritu dut: nahasketa-mahaia, mikroak...

Zer musika-mota grabatzen duzu?

Gehien lantzen dudana estiloa rock, punk-rock, pop-rock eta metala da. Hala ere, denetarik grabatu dut; azkena, abesbatza bat izan da.

Zein da zure eskaintza?

Nire tarifa abesti bakoitzekoa da, ez ordu bakoitzekoa. Abesti bat 100 euroan grabatzen dut, baina diskoa izan da, 60 euro balio du abesti bakoitzak. ◀

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4. URDULIZ
94 676 07 15

SANANTOLIN etako
BIDEOAK USB_n

Non eskuratu?
¿Donde conseguirlo?

Zure datuekin e-mail bat bidaliz
Enviado un mail con tus datos a
plentziatelebista@gmail.com

Txefe liburudendan
Librería Txefe
Embera kalea, 14, Plentzia

Arraun estankon
En el estanco Arraun
-Arraun kalea 1, Plentzia-

PTB



Merkatalgune berria eraikitze obrak egiten dabilta daborduko.

Lidl kateak ere egon gura du

Supermerkatu-kateak Landaia Goikoko merkatalgune berrian egoteko interesa agertu du.

Apurka-apurka, itxura hartzen hasi da Berangoko merkatalgune berria izango dena. Izan ere, azken hila-beteotan hondeamakin presentzia nabaria da Landaia Goikoko gunean, hara eta hona dabilta, azpiegitura komertzial berria eraikitze lanetan. 84.000 metro koadro izango ditu gu-neak; horietako 24.500 metro koadro berdeguneak eta aparkalekuak izang dira; beste 50.700 metro koadroetan eraiki ahal izango da. Daborduko, euren saltokia bertan ezarri gura dutela adierazi dute Mercadona supermerkatu-kateak eta Decathlon kirol-produktuen dendak, baita horretarako eskera egin ere. Eta, oraintsu, Lidl su-

permerkatu-kate alemaniarrek ere horretarako interesa agertu du. Lidl-eko Komunikazio saileko kide Matías Buenok baieztatu egin du «proiektu hori aurrera doala»; halere, «oso hasierako fasean» dagoela azaldu du. Bere aldetik, Anabel Landa Berangoko alkateak jakinarazi duenez, «Mercadonak eta Decathlon publikoki azaldu dute Berangon ezartzeko gura, eta eskaera eginda dute jada; une honetan ez dago bestelako lizentzia eskaerarik. Hala ere, badakigu beste hainbat enpresek interesa daukatela». Berangoko Udalak Landaia Goikoa sektorea garatzeko urrats berria eman zuen iaz udalerriko inguru horren Plan Partziala onartu ostean. Hala, bertan ezarri gura duten ekimen guztiak martxan ipini ahal izango dira. Mercadona izango da bertan ezarriko den lehena, 1.500 metro koadro hartuko ditu eta «40 lanpostu sortuko ditu»; Decathlonek, «80 lanpostu ekarriko ditu udalerrira». ◀

Solange Pereira eta Fernando Sainz, Miliako arinenak

Fernando Sainz (Piélagos taldea) eta Solange Pereira korrikalariak (Valencia Terra i Mar taldea) irabazi dute Berangoko Nazioarteko Miliaren 29. edizioa. Lehia joan den zapatuan jokatu zen, Gobelaldeko zirkuituan.

Gizonezkoen lasterketa Sainz eta Sergio Jiménez arren arteko sprint oso estu batez erabaki zen. Horien bien arteko norgehiagoka zela-eta, 4 minutu eta 19 segundotan amaitu zen proba,

horrek daukan errekorra baino segundo bat gehiagoan. Bigarren eta hirugarren izan ziren Jiménez eta Ilias Fefa, hurrenez hurren.

Emakumezkoen lasterketan, Peireirak Esther Guerrerori irabazi zion; hala, lasterkari galiziarrek lau aldiz jarraian irabazi du Berangoko Milia. Peireirak 5 minutu eta 1 segundoko marka egin zuen, Guerrerok baino segundo 2 gutxiago. ◀

Barrika

Game of Thrones teleaileko lan-baldintzak salatu dituzte

Data zehaztu ez duten arren, hila-bete honetan grabatuko dituzte Muriola hondartzan *Game of Thrones* telesail ospetsuaren hainbat eszena. Hori dela-eta, antolatzaileek 20 pertsona kontratatuko dituzte; batetik, mugatutako guneak jagoteko, eta bestetik, hainbat zerbitzu egiten laguntzeko. Horri lotuta, produkzio taldeak eskainiko dituen lan-baldintzak salatu ditu Barrikako EH Bilduk. Jakinarazi dutenez, «hainbat milioi euro maneiatzen dituen produkzio-enpresa multinazional batek 4,16 euro ordainduko ditu lan egindako ordu bakoitzeko». Hala, baldintza horien berri

zuen ala ez galdetu dio koalizio aber-tzaleak bertoko alkateari; horrek erantzun duenez, baldintzak ados egon ez arren, «denak legala zirudien». EH Bilduk, bere aldetik, eskatu du udalerrian egiten diren kontratuak «bertoko baldintzetara egokituta» egotea. Era beran, kalitatezko lanpostuak sortzea eskatu diote alkateari; berbarako, liburutegiko plaza berreskuratzeko obrak egitea.

Horrez gainera, produkzio-enpresak paisajistikoki babestuta dagoen inguru hori (Muriola hondartza) zaintzen duela bermatzea eskatu dio Udalari barrikoztar batek. ◀

Plentzia

Gabon-gauko Olentzeroren antzerkirako, jende bila

Olentzero ikazkina eta Mari Domingi gurera etortzeko hilabete bi baino gehiago gelditzen diren arren, Plentziako Udalak Gabonetako jentila nor izateko erabakitze prozesua ipini du martxan. Urtero legez, Gabongauan plentziarrak Eliz plazan batzen dira Olentzerori eta beste pertsonaiei ondo etorria emateko. Hori dela-eta, gau hori magiko bihurtzeko antzerkirako jendea behar dute. Horretarako, hautaketa prozesua abiatuko dute; hala, interesa dutenek hilaren 20 arte eman ahaliko dute izena, Goñi Portalen (Kale Barria, 2). ◀

info+: www.getxo.eus



Modu eraginkorrean lana zelan bilatu ikasteko tailerra

Lana bilatzen ikasteko tailer praktikoa antolatu du hil honetarako Plentziako Udalak. Jakinarazi dutenez, klaseak doakoak izango dira, eta horietan parte hartu ahal izateko alde aurretik izena eman beharra dago, hilaren 18a baino lehenago, Goñi Portalen. Tailerra urriaren 24tik 27ra bitartean egingo da, Goñi Portalen bertan; leku-kopurua mugatua izango dira. Arduradunen arabera, garrantzitsua da curriculum erakargarri bat egiten jakitea. Horregaz batera, lan-elkarrizketa bat ondo eroaten jakiteak ere berebiziko garrantzia du, besteak beste. Horretaz guztiaz gainera, lan-bilaketa eraginkorragoak egiten ikasteko teknikak irakatsiko dituzte. ◀

Fernando Francoren Morir filma grabatu dute Plentzian

Bere azken filma Plentzian grabatzen ibili da Fernando Franco zinemagilea. *Morir* izenburudun film luze horrek Luis (Andrés Gertrudix) eta Martak (Marian Álvarez) osatzen duten bikotearen eraldaketa-prozesua kontatzen du, gaixotasun baten ondorioz. Horrenbestez, «pertsonaien erretratu psikologikoa» izango da filmaren muina, hala izan zen Francoren aurreko lanean ere, *La herida*-n. Pasa den irailaren 26an hasi ziren filmatzen euskal kostaldean; hala ere, inguruotan grabazioak egin ostean, Nafarroa, Madril eta Andaluziara ere joango dira irudiak grabatzera. Grabazioa urriaren 29an amaituko dela iragarri dute, Sevillan, hain zuzen ere. ◀

Urduliz

Atzeragaine inguruko lursail bat salduko dute, etxebizitzak egiteko

Udal-titulartasuneko da Atzeragaine inguruan dagoen 36 eremuko F-1 lursaila, eta lehia-keta publiko bidez salgai ipini zuen Urdulizko Udalak, prezio libreko etxebizitzak eraikitzeko. Lur eremu horrek lauki zuzeneko itxura du eta 1.020 metro koadroko azalera. Lursailak 2.441.001 euroko salneurria izan du (BEZ barik). Jabetza hori erosteko proposamenak aurkezteko epea irailaren 26an amaitu zen. Hala, aurkeztutako artean lizitazioa zein izango den ikertzen dabilta oraindino. ◀



Lemoiz

Udaletxea izan zen eraikinaren teilatua konponduko dute

Lemoizko Urizar auzoan dagoen eta Udaletxea izan zen eraikinaren teilatua aldatzeko obra egingo dute. Horretarako diru-laguntza ematea onartu baitu Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak. Lan horiek egin ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak 14496,45 euro (BEZ barne) ematea aurreikusi du, Lemoizko Udalak bere webgunean jakinarazi duenez. Oraindino ere, Udalak ez du zehaztu noiz hasiko diren teilatua zaharbertzeko lan horiek egiten. ◀

info +: www.lemoiz.eu

Nagusientzako euskara ikastaroak antolatu dituzte

Gurasoentzako eta aitona-amonentzako euskara ikastaroak antolatu ditu Lemoizko Udalak, AEK Euskaltegiagaz elkarlanean. Horietan izena emateko epea zabalik dago. Taldea sortuko balitz, eskolak Lemoizen bertan emango lituzkete. Ikastaroon helburua da nagusiak euren seme-alabakaz edo ilobakaz euskaraz elkar ulertzea, eta horiei lagundu ahal izatea eskolako lanetan zein ohiko bizitzan ere bai. Azaldu dutenez, «Lemoizko Udalak euskaren erabileraren alde apustu finkoa egin ondoren, ahalegin ekonomikoa

izugarria egin du» 2016-2017ko ikastaro honetan; hala, «aurreko urteko 90 orduko ikastarotik, aurten 120 orduko pasatuko da, eskaintza hobetuz». Ikastean izen-eman gura izanez gero, Gornizko, Plentziako edo Urdulizko AEK euskaltegiara jo daiteke; bertan informazio gehiago eskainiko dute. Ikastaroa doakoa izango da eta 2017ko ekainean amaituko da. Hala, ikasturte osoko iraupena izango du. Izena emateko epea urriaren 14an amaituko da; kurtsoa urriaren 18an hasiko da-eta. Ez galdu aukera! ◀

info+: www.lemoiz.eu

Gorniz

Punk-rock gaua Xurruten, Inarrestabili talde italiarragaz

Momentu honetan Italian, punk-rock melodikoko banda interesgarrietakoa den Inarrestabili taldea zuzenean ikusteko aukera egongo da urriaren 16an, domekan, 21:00etan Gornizko Xurrut tabernan. Sardiniako taldeak aurten argitaratu duen *Punk rock* lan berria italiaraz eta gaztelaniaz abesten dute; Less Than Jake, NOFX eta Bad Religion banda estatu-batuaren klasikoen eragina dute. Inarrestabili 2005ean sortu zen, eta Sevek (ahotsa eta gitarra), Pitchek (koruak eta gitarra), Enricok (baxua) eta Gnap-pok (bateria) osatzen dute taldea. ◀

Gornizko zaindutako 32 hegazti askatu dituzte Gorbeian

Gornizko Fauna Basatia Sendatzeko Zentroan jagondako 32 hegazti askatu dituzte Gorbeian. Denera, 22 urubi, 7 zapelatz arrunt, 2 sai arre eta 1 belatz aske utzi dituzte. Gornizko zentroan egiten duten lanaren garrantzia azpimarratu zuen Elena Unzueta Iraunkortasuneko sailburuak, eta aurten daborduko zentroan 989 animalia jaso direla aipatu zuen, lesio eta gaixotasun ezberdinak sendatzeko. Fauna Basatia Sendatzeko Zentroa martxan ipini zenetik, espezie ezberdinetako 13.940 animaliak lan egin dute instalazio horietan. Animaliak zentrorra heltzen direnean, sarrera-erregistroa eta albaitaritzako diagnostiko bat egiten dituzte, besteak beste. ◀

Uribe Kosta

Beldur Barik lehiaketa antolatu du Mankomunitateak

Aurton ere martxan da Beldur Barik Jarrera! Lehiaketa. Uribe Kostako Mankomunitateak ere lehiaketa antolatu du; Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz udalerriek begirakoa da. Horretan, lehiaketa orokorrean legez, parte-hartzaileek indarkeria sexista aurreikustearren ideia garatuko duten 5 minutuko ikus-entzunezkoak aurkeztu beharko dituzte; 3 proiektu, gehienez. Eskualde-mailako lehiaketan 10 eta 26 urte artekoek parte har dezakete, hiru mailatan: lehenengoan, 10 eta 12 urte artekoak; bigarrenean, 12 eta 17 urte artekoak; eta hirugarrenean, 18 eta 26



urte artekoak. Maila bakoitzeko sari nagusia 200 euroko balioa duten opari-txekeak izango da. Lanak azaroaren 9ra arte aurkez daitezke. Sari-banaketa azaroaren 26an izango da, Urdulizen. ◀

Irratian trebatzeko euskarazko saioak antolatu dituzte

UK Gaztea ekimenak ikasturtea hasiko du jardura berri batez: irratsaio batez. Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen erroldatuta dauden 13 eta 18 urte arteko neska-mutilei zuzenduta dago ekintza hori, irratia alorrean treba daitezen.

Saioak urriaren 15ean eta 22an izango dira, zapatuak biak, arrastiko 06:00etatik 08:30era arte. Horretan parte hartu gura duten neska-mutit guztiak alde aurretik izena eman beharko dute. Ekimena doakoa da, baina, leku-kopurua mugatua izango da; horrenbestez, lekuak agortu arte

aukera egongo da horretan izena emateko, Urdulizko Gaztelekuaren helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Irratsaioa euskaraz izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Hala, irratia mundua bertatik bertara euskaraz ezagutu eta saio propioa prestatu gura duten neska-mutilek izena eman eta aipatutako egun bi horietan Urdulizera hurreratu baino ez dute egin behar izango. Izan ere, saio biak udalerrira horretako Gaztelekuan egingo dira, Elejalde kaleko 4 zenbakian, 18:00etatik 20:30era. ◀

harremanetarako: gazteleku@urduliz.net
688 846 190

Euskarazko antzezlanen artean, *Heroiak* eskainiko du Txalo taldeak. ANBOTO.ORG

Aste-akabu honetan

Urriak 7, barikua

19:00 *Tras la frontera* antzezlan, helduentzat, Plataforma Tirantegaz, San Nikolasen. Gaztelaniaz. Doan.

Urriak 8, zapatua

13:00 *Herriko jaiak* antzezlan, umeentzat, Potxin eta Patxin pailazoakaz, San Nikolasen. Euskaraz. Sarrera, doan.

20:00 *Heroiak* antzezlan, helduentzat, Txalo taldeagaz, Andrés Isasin. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

Urriak 9, domeka

13:00 *Gear* (Matxalen Bilbao) eta *4x4* (Ertza) dantza-ikuskitunak, edozein adinetako ikusleentzat, San Nikolasen. Sarrera, doan.

18:00 *Robando magia* antzezlan, umeentzat, Txalo taldeagaz, Andrés Isasin. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

18:30 Antzerki arina, Algortako kultur etxean. Saio bakoitza: 3 euro.

info+: www.getxo.eus/eu/jornadas-teatro

Taulan zein kalean

Getxoko Antzerki Jardunaldiek 11 ikuskizun eskainiko dituzte hurrengo aste-akabu bietan, Algortako San Nikolas plazan eta Areetako musika-eskolan.

Aurten ere, ohiko jardunaldien bitartez abiatuko dute antzerki-denboraldia Getxon. Aurreko edizioetan legez, askotariko ikuskizunak osatu dute egitaraua; betiere umei arreta berezia eskainiz, gaztetxoek arte eszenikoaren mundura erakarri gura dituzte-eta. Hala, aste-akabu honetan eta

hurrengoan 11 ikuskizun eskainiko ditu Antzerki Jardunaldien 34. edizioak. Batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz eta pare bat testu bakoak izango dira. Horieta hiru umeentzako lanak dira; beste hiru, helduei begirakoak; gainontzekoak, edozein adinetako ikusleentzat. Iaz legez, agerleku bi egongo dira: Algortako San Nikolas plazan ka-

leko ikuskizunak antzeztuko dituzte; besteak, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan izango dira. Horrez gainera, kalejira formatuko lan bat egingo dute, Algortako Basagoiti etorbidean. Besteak beste, Plataforma Tirante, Txalo, Deabru Beltzak eta Glu Glu taldeen lanek osatzen dute egitaraua.

Antzerki arina

Modu berean, antzerki arineko egitaraua ere egongo da, aurreko urte bietan legez. Gehienez 20 minutu dirauten 11 muntaia antzeztuko dira,

guztira. Lan horiek denak Algortako kultur etxean izango dira, urriaren 7an eta 16an. Azkenik, aurtengo Antzerki Jardunaldiak Udalak bultzatutako *Zurumurrurik Ez* izeneko estrategiaren baloreakaz bat datozela gogoratu du Getxoko Kultur Etxeak. «Horren bitartez, kultura arteko eta estereotipo negatibo edo aurreiritzi bako Getxo baten aldeko apustua egin gura da», bertoko arduradunek azaldu dute. Hori dela-eta, urriaren 14an antzerki-inprobisazioa ardatz daukaten ekitaldi bi eskainiko dituzte. ◀

Koldo Serraren *Gernika* pelikula, Kultur Leioan

Urriaren 8tik 10era bitartean, Kultur Leioako entzungelan ikusi ahal izango da irail hasieran estreinatu zuten *Gernika* filma. Zapatuan, domekan zein astelehenean, 20:00etan izango dira saioak; sarrerak 4,50 euroan egongo dira salgai. Condor legio alemaniarraren eta Italiako Aviazione Legionariaren hegazkinek 1937ko apirilaren 26an egindako bombardaketan girotu dago filma; drama erromantikoa da Koldo Serra getxoztarrak zuzendutako lana. Maria Valverde da pertsonaia nagusia, eta beragaz batera pantailan ikusiko ditugu hainbat aktore ezagun: Barbara Goenaga,



ZINEA.EUS

James D'Arcy, Jack Davenport, Ingrid Garcia-Jonsson, Burn Gorman, Irene Escolar eta beste asko. Barney Cohen eta Carlos Clavijo izan dira gidoilariak. 12 urtetik gorakoei begirako filma da. ◀

Euskaraz berba egiteko taldeak; eragin mihiari!

Euskaltzaleen Topaguneak 2016-2017 ikasturteko Mintzapraktika egitasmoa abiatu du; zabalik dago izena emateko epea. «Euskal Herriko euskaltzale guztiei egin gura diegu proposamena: astean ordu betez beste pertsona batekin elkartu eta euskaraz jarduteko agendan tartetxo bat egitea», adierazi dute bertoko arduradunek. Euren ustez, «urteetako esperientziak erakutsi du askok egunerokotasunean euskaraz bizitzeko saltoa eman dutela, bidelagun izan dituzten mintzalagunei esker». Aurten ere herri eta eskualde askok zabalduko dizkiote ateak Mintzapraktikan jarduteko au-

kerari, Topagunearen bitartez; lekuan lekuko euskaltzaleen elkarteakaz eskuz esku; besteak beste, Getxon eta Erandion egongo da aukera. ◀

Izen-ematea

Erandion

Berbots Erandion Euskaraz! taldea

berbalagunerandio@gmail.com

Getxo

Egizu Getxo Euskaldun euskara-taldea

Urri osoan

619 935 541 / egizugetxo@gmail.com

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko urriaren 6tik urriaren 12ra arte



hiruka.eus



Fadurako Gobelak futbol-zelaietan egin zuten hitzaren Dantza jaialdiaren lehenengo edizioa izan zen, ALBEren 35. urteurrena ospatzeko.

GETXO

Hitzairen Dantza jaialdia egingo dute, Algortan

Domeka honetan, urriak 9, izango da Hitzairen Dantza jaialdiaren bigarren edizioa, Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatuta. Bertan, bat egingo dute hiru euskal kultur adierazpidek: bertsolaritzak, euskal dantzek eta herri-musikagintzak. Aurtengo ekitaldiaren formatua, aldatu egin dute: jaialdiaren esparrua Algortako erdi-gunean kokatuko da. Gainera, Hitzaren

Dantzaren bigarren edizioari izena eta guzti ipini diote: *Zazpi jauziak*. Batetik, euskal dantza ezagun baten izena da; bestetik, bertsoen, euskal dantzen eta herri-musikaren goizeko agerraldiak herriko zazpi plazatan edo gunetan egingo dira, 11:00etatik aurrera. Agerraldi horien gailurra Telletxe plazan izango da; han, bertsolariek *Zazpi jauziak* dan-

tzaren doinuaren inprobisatuko dute, herritarrek dantzatzaren duten bitartean, 14:00etan. Gero, herri-bazkaria egingo da, 15:00etan, Biotz Alai plazan; ostean, bertso-saioa: Eneko Abasoko *Abarikas*, Oihana Iguaran, Fredi Paia eta Arrate Illarok jardungo dute kantuan. Arrastian, Bizkaiko dantzen erakustaldia eta Oxabiren erromeria izango dira, 18:30ean. ◀

2016/10/06 - 2016/10/08

Itzubaltzeta gaztetxearen hamabigarren urteurrena

Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo

Eguenean, Artatza-Romo institutuaren txupina bota eta luntxa (11:15) egingo dute. Barikuan, Santa Eugenia plazan izango da txupinazoa (20:30); bertatik abiatuko da Sakatu elektro-txaranga (21:00). Azkenik, zapatuan, txikien-gunea (11:30), poteoa (13:30), bazkaria (15:00), gazte-olimpiadak (18:00) eta kontzertuak (21:00) egingo dira.

2016/10/06 - 16:20

Zikoinak filma

Getxo Zinemak | Getxo

Euskaraz. Sarrera: 7,50 euro.

2016/10/06 - 17:30-19:30

Trebetasun-zirkuitua

Ontziola plaza | Plentzia

Uribe Kostako Mankomunitatearen Euskeraz Oligetan egitasmoagaz. Barrikatik domekara, Urdulizko Antsonokoa (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta (12:00-14:00) eta Larrabasterako Urgitieta (12:00-14:00) plazetan egingo dituzte jolasak. Doan.

2016/10/06 - 18:00

Amama filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/06 - 19:00

Euskal Estatua irudikatzen liburuaren aurkezpena

Algortako kultur etxea | Getxo

Giltza formakuntzarako taldeak antolatuta. Mikel Saratxo EHuko ikerlariagaz. Doan.

2016/10/07 - 2016/10/16

Extremadurako Kultur Astea

Astrabudua | Erandio

Astrabuduko Extremadurako Etxeak antolatuta. Besteak beste, azoka, musika, dantzak, eta herri-bazkariak egingo dira. Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

2016/10/07 - 2016/10/12 - 12:30 / 18:30

Begoña Puntako galerien erakusketa eta bisita gidatuak

Begoña gaztelua (Algorta) | Getxo

Ondarearen Europako Jardunaldiak. *Punta Begoña: eraikuntzako teknikien migrazioan erreferentzia* erakusketara bisita. 10 urteko goraikuntza. Euskaraz eta gaztelaniaz. Aldez aurreko erreserba egiteko: 944 910 800

2016/10/07 - 19:00

Joy filma

Algortako kultur etxea | Getxo

2016/10/08 - 11:00

A present for Granny ipuin-kontaketa saioa

Algortako kultur etxea | Getxo

Umeentzat. Ingelesez. Sarrera, doan.

2016/10/08 - 13:00

Herriko jaiak antzezlan

San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo

Getxoko 34. Antzerki Jardunaldiak. Potxin eta Patxin pailazoakaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/10/08 - 19:00

Perdiendo el norte filma

Berango Antzokia | Berango

Pelikula 7 urteko gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/08 - 20:00

Heroiak antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo

Getxoko 34. Antzerki Jardunaldiaren barruan. Txalo taldeagaz. Helduentzako antzezlan. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

2016/10/09 - 13:00

Gear eta 4x4 dantza-saioak

San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo

Getxoko 34. Antzerki Jardunaldiaren barruan. Matxalen Bilbao eta Ertza taldeagaz, hurrenez hurren. Ikusle guztientzat. Sarrera, doan.

2016/10/09 - 18:00

Robando magia antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo

Getxoko 34. Antzerki Jardunaldiaren barruan. Txalo taldeagaz. Umeentzako antzezlan. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

2016/10/09 - 18:00

Atrapa la bandera filma

Berango Antzokia | Berango

Pelikula 12 urteko gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/09 - 18:30-21:30

Antzerki arina

Algortako kultur etxea | Getxo

Getxoko 34. Antzerki Jardunaldiak. *Almeada, I'm a real artist, Manar, El diablo del teatro* eta *Boxer's* goiburudun saioak eskainiko dituzte; 20 minutu irauten du emandako bakoitzak. Saio bakoitza, 3 euro. Lau saiorako bonua, 9 euro. Informazio gehiago: www.getxo.eus.

2016/10/10 - 18:30

PLENTZIA

Itsas garraioa eta migrazioa ezagutzen

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, zapatu honetan, urriak 8, bisita gidatua egingo dute, euskaraz, Plentzian; hitzordua 11:00etan ipini dute, turismo-bulegoan (Erribera, 23).

izen-ematea: 946 774 199

LEIOA

Umeentzako Printze txikia filma, ikusgai

Zapatuan eta domekan, urriak 8 eta 9, euskarazko film bategaz gozatzeko aukera izango dute umeek, Kultur Leioako entzungelan. *Printze txikia* filma 17:30ean proiektatuko dute egun bi horietan; sarrerak 3,50 euroan daude.

GETXO

Ibilaldi neurtua, Itxartu taldeagaz

Ohi den legez, ibilaldi neurtua egingo du Algortako Itxartu taldeak, urriaren 12an, eguaztena. Izen-ematea euren webgunearen bidez edo egunean bertan egin daiteke.

izen-ematea eta info+: www.itxartu.com

Tras la frontera antzezlan

San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo
Getxoko 34. Antzerki Jardunaldien barruan, Plataforma Tirante taldeagaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/07 - 20:00

Garrobiren urteurren-jaia

Getxo taberna (Amezti, 3. Algorta) | Getxo
Bilera eta jaia egingo du Getxoko artisten kolektiboak. Sarrera, doan.

2016/10/08 - 2016/10/10 - 20:00

Gernika filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Emanaldiak 12 urteik gorakoentzat dira. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

Enclave de Ciudadanas por Getxo taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Ondoren, berbaldia egingo da. Sarrera, doan.

2016/10/11 - 20:00

Luces de Paris filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo zineforumaren *Bikoteak*. *Sekretuak eta gezurrak* zikloaren barruan. Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/10/11 - 20:00

Argazki-kritika eraikitzailea

Atxutegi, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub elkarteak antolatuta. Bertaratuakoen argazkiak iruzkinduko dituzte. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.



Irudian, iazko aurkezpen-ekitaldia, Kultur Leioan.

ArgIHizkiak 2016: gonbidatuta zaudete!

ArgIHizkiak lehiaketaren bosgarren edizioan parte hartu duten guztien artean 40 testurik onenak aukeratu dituzte. Testuok eta horiek oinarri dituzten 10 argazkiek osatzen dute erakusketa prest dago. Horren aurkezpen-ekitaldia eta sarien banaketa hurrengo egunean egingo dituzte.

Noiz: Urriak 13, eguena.
Ordua: 19:30
Non: Torrene aretoa (Algorta).
Sarrera: Doan.

SOPELA

Kontu kantari saioa edukiko dute txikiak, zapatuan, Kurtzion

La Ressistens kolektiboak *Kontu kantari* goiburudun txotxongilo-ikusizuna eskainiko du domeka honetan, urriak 9, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia euskaraz izango da. Umeek 3 euro ordaindu behariko dituzte; helduek, 5 euro. *Kontu kantari* saioak oroimenean dauzkagun abestiak batzen ditu, horiek reggaea, rapa edo bluesa bezalako eritimo desberdinetara eroanez.



URDULIZ

Akabuko martxea eta Dominica filmak; ostean, berbaldia

Urriaren 13an, eguena, 19:30ean, Urdulizko kultur etxean izango da hitzordua; sarrera, doan. Gipuzkoako mendietatik eskualdera, neguan, artaldeak ekartzen zituzten artzainen zeregina akordura ekartzen duen dokumentala da *Akabuko martxea*; artzaintzan emakumeek egindakoa aldarrikatzen duen ikus-entzumezkoa *Dominica*.



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Urriaren 13tik 30era arte
Torreneko erakusketa-aretoa (Algorta)





Oinarrietako batzuk

Nori dago zuzenduta?

Arte Ederren fakultateko gradu, master eta doktoregoan 2015-2016 edo 2016-2017 ikasturteetan matrikulatutako ikasleek parte har dezakete.

Non egingo dute murala?

Leioako campuseko Garai kafetegiaren eskuma aldeko horman, Mikel Laboa plazan; 4 metroko altuera eta 6 metroko zabalera edukiko du, gutxi gorabehera. Teknika askeaz egingo da.

Saria

Ordainsaritzat, 2.000 euro. Beste 500 euro materialak erosteko.

Aurkezteko epea

Urriaren 28ra arte.



Adimen-garapena

**GORKA
AURRE URTZAA**
Irakaslea

Ikasturte hasiera itxaropentsua

Hasiera malkartsua aurkeztu die ikasleei irailak uda guztian zehar izan duten zeregin handirik gabeko egunen joanaren eta ornik gabe ibiltzeko ohitura barneratuaren ordeztu erantzukizuna, helburuak eta etxerako ariketak nagusitu baitira.

Guraso eta ikasleak itxaropentsu ditugu eta horretarako arrazoi nahiko dago. Guraso zein ikasle, zeharo atsedenduta datoz udako oporretan dagokion geldialdia egin ondoren. Zorioneko oporrak. Ikasleek asmo onez, gogo biziz eta ahalegintzeko borondatez azaltzen zaizkigu.

Erabat motibatuta datoz eta ez da gutxiagorako. Udak ekintza asko burutzeko aro berezia eskaintzen digu eta aurreikusitako hainbat jarduerak... gauzatu egiten dira, beste asko egiten jarraitzeko motibazioa ezarri eta ugarituz. Udaldia ikasturtean zehar egiterik izaten ez diren ekintza ugari burutzeko aukera bikaina dugu. Eta horrek, txiki zein handi, erabat motibatzen gaitu.

Motibazioa, ondorioz, giza jardueraren arrazoi nagusienera bat dugu. Motibazioa ekintzarako zio edo zergatia dugu. Zioa, jarduera bati hasiera zergatik eman diogun azaltzera datoren energia iturri gisa gertatzen da. Zioak jarduera hori, behin hasitakoan, mantendu egiten du eta ondoren, aldeztu aurretik lortu nahi izan diren helburuak lortzera garamatza.

Ikasturtea baina, gutxi barru, dinamika berri baten abiatuta ikusiko dugu, bere iparrorratza zuzen jarri eta ekainera arte tinko eutsiz. Bitartean, izango dira «errutina kultural sano eta herrikoia» ere. Daborduko urte bi bete ditu Garrobik; bariku honetan, urriak 7, egingo dute urteurrena ospatzeko bilera zein jaia. Horretarako hitzordua 20:00etan ipini dute, Algortako Getxo tabernan; sarrera, doan. ◀

tzeptualki eta teknikoki deskribatuz), izen-deiturak, posta-helbidea, helbide elektronikoa, telefono finkoaren edo mugikorren zenbakiak helarazi beharrezkoak dira; beste PDF batean, CV laburra eta lehenagoko artelanen aukeraketa bat. Aurkeztutako lanen ezaugarriak dagokienez, lau metroko altuera eta sei metroko zabalera eduki beharko dute; askea izango da teknika. Materialak erosteko, 500 euro emango dituzte, eta 2.000 euroko saria. Erosketak fakturakaz zuritu beharko dituzte horma-irudiaren egileek. ◀

bidalketa: ecultural.fac.bellasartes@ehu.es

Aukeraturako proposamena egiten hasi baino lehenago, orain horman dagoen EHUren logoa kenduko dute.

Mural-lehiaketa abian da

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) horma-irudi bat egiteko lehiaketa iragarri du; urriaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dituzte ikasleek proposamenak.

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen lankidetzagaz, horma-irudi bat egiteko deialdia egin du Bizkaiko campuseko errektoreordeak. Murala, Garai kafetegiaren ondoan, Mikel Laboa plazan, egin beharko du irabazleak edo irabazleek. Izan ere, proposamenak banaka zein taldeka aurkez daitezke; kontutan har-

tuta proiektua sarituko dutela, ez parte-hartzaileak, EHUko arduradunek nabarmendu dutenez. Proposamenak urriaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dituzte Arte Ederretako ikasleek.

Proiektua PDF formatuan aurkeztu beharra dago (5 MB, gehienez), A3 neurriko orri bakar batean. Horrez gainera, proposamenaren irudi bat edo bi, *abstract* bat (proposamena kon-

Extremadurako Astea antolatu dute Astrabuduan

Astrabuduko Getxo kalean dagoen Extremadurako Etxea 50 etorkinek zabaldu zuten 1979an. Orduetik hona, lurralde hartako kultura, ohiturak eta gastronomia ezagutzera ematea izan da bertoko bizilagunen helburua. Besteak beste, La Encina abesbatza eta Virgen de la Montaña dantza-taldea osatu zituzten; gaur egun, zumba, pilates eta ehaziri-lanen ikastaroak egiten dituzte bertan. Baina, urtero antolatzen duten Extremadurako Astea ez da bakarrik lurralde horretako adierazpen kulturalak erakustera mugatzen. Astrabuduko hainbat elkarteren laguntzaz, Euskal Herriko ohiturak ere lau haizetara zabaltzen dituzte. Hala, bariku honetatik urriaren 16ra bitartean, besteak beste, musika-emanaldiak, azokek, txapelketek eta bazkariak beteko dituzte Josu Murueta plaza eta inguruko kaleak. Ekitaldiren bat aipatzearen, martitzenean, urriak 11, emakumeen bazkaria egingo dute. ◀

info+: hiruka.eus/agenda

Barikuan, bigarren urteurrena ospatuko du Garrobi taldeak



Hainbat artista gaztek osatzen dute Garrobi.

Getxo udalerriko errutina artistikokulturala sendotzeko asmoz sortu zuten Garrobi hainbat gazte sortzailek. Udalerriko eskaintza kulturala zabala bada ere, «herriko sortzaileen fruituaren falta» igarri zuten; baita «errutina kultural sano eta herrikoia» ere. Daborduko urte bi bete ditu Garrobik; bariku honetan, urriak 7, egingo dute urteurrena ospatzeko bilera zein jaia. Horretarako hitzordua 20:00etan ipini dute, Algortako Getxo tabernan; sarrera, doan. ◀

info+: www.garrobi.com

Hitza emanda



Urria

Udarak eraman du pozen iturria, udazkenari hartzen gabiltza neurria. Horra hor hil berria, berez bihurria... ez dadila gertatu urria urria!



**UNAI
ANGULO
ALDEKOA**
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Algortako Bertsolari Eskola

argi hizki ak

**INAUGURAZIOA eta
SARI-BANAKETAREN
EKITALDIA**

Urriaren 13an, eguena,
19:30ean, Torreneko aretoan

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN V. LEHIAKETA

Getxon, urriaren 13tik 30era

ERAKUSKETA

TORRENEKO ERAKUSKETA-ARETOA (Algorta)

Martitzenetik barikura, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00

Zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00. Domeketan, 12:00-14:00

www.argihizkiak.com



hiruka



aitxu!



Berbaldun
EUSKARAZ EGIN DEZAGUN



E!
Erandio



«Istorioak kontatu gura ditut, nire ikuspegitik ere bai»

Nerea Falagan Martin (Sopela, 1991) Getxophoto jaialdi artistikoan egon da beharrean, zazpigarrenez, produkzio lanetan. Ikus-entzunezkoetan lizentziatu ostean, argazki-zuzendaritza ikasi zuen Zinema Eskolan. Orduetik, hainbat proiektutan parte hartu du, alor ezberdinetan.



IKER RINCON MORENO

Getxophoto jaialdiari amaiera eman zenioten urriaren zan. Zer deritzozu aurtengo edizioari?

Nire ustez oso ondo atera da. Aurten 10 urte bete ditu jaialdiak; hori dela-eta, oraingo komisarioa Jokin Aspuru izan da. Hasiera batean, aurreko edizioetan komisario lanak egin dituzten guztiek, denek batera, programazio artistikoa egitea zen ideia. Hala ere, azkenean, Jokin konbentzitu zuten eta berak hartu zuen behar hori. Oso lan ona egin du, oso programazio artistiko polita izan dugulako. Gainera, 10. edizioa izanda, nabaritu egin dugu jendearen fideltasuna. Izan ere, jendeak errepikatu egin du; ekintza batzuek oso ondo funtzionatzen dute.

Zein izan da zure ardura jaialdian?

Aurtengoa nire zazpigarren urtea izan da; hilabete eta erdiz egoten naiz lanean. Gero, batzuetan, urtean zehar ere, umeakaz beste hainbat tailer egiten ditut. Ni produkzio-taldean nago; horrez gainera, jaialdiak irauten duen bitartean, informazio-puntu egoten naiz eta bisita gidatuak egiten ditut, aldi berean. Hori da gehien gustatzen zaidana; jendeagaz egoten naitzelako, gurago dut jaialdian zehar egiten dudana, produkzioa baino gehiago. Asko gustatzen zait aurreko edizioetan ikusitako aurpegiak berriro ikustea, oso lan polita da. Gainera, argazkigintzari buruz ikasteko aukera ezin hobea da!

Aurreko edizioak alderatuta, zein berritasun izan dituzue aurtengoa?

Aurreko urtean *Oheak* ekintza egin genuen. Horretan, hainbat ohe jartzen ditugu Begoñako galerietan, jendeak pelikula bat ikusteko euren etxean egongo balira bezala. Iaz arrakasta izan zuen horrek, eta zerbait arrakastatsua denean errepikatu ohi dugu. Halaber, iaz umeakaz bisita gidatuak egin genituen, eta aurten

“ Argazkigintza, halabeharrez, denboragaz lotuta dago beti. Hortaz, Getxophotoren gaia oso polita izan dela uste dut ”

ere errepikatu egin ditugu, egun bitan. Oso ondo atera da. Horrez gainera, programazioa apur bat moldatu dugu. *Itxialdian*, berbarako, diziplina ezberdinetako adituak etorri dira eta argazkigintzaren inguruan berba egiteaz gain, denboraren inguruan ere mintzatu dira, aurtengo gaia horixe zelako: *Denbora*. Halaber, aurten amaieran egin dugu, nolabait jaialdia itxeko, jaialdiaren hasieran egin beharrean. Gainera, Begoñako galerietan egin dugu, lekuz aldatzearren.

Zergatik da hain interesgarria *Denbora* gaia?

Nire ustez polita da gai irekiak lantzea. Azken finean, denborak gauza asko suposatzen ditu. Denborari bu-

ruz hitz egiten dugunean, denbora kosmikoaz mintza gaitezke, denbora pertsonalari buruz, memoriaren inguruan edo pertsonetan zein lekuetan utzitako aztarnez ere bai. Gai asko jorra daitezke gai horren inguruan, eta, argazkigintza, halabeharrez, denboragaz lotuta dago beti. Guztiz bateragarriak dira gai biak; hortaz, 10. edizio hau ospatzeko gai oso polita izan dela uste dut.

Aurkeztutako lan guzti-guztietatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Aurten gustatu zaizkidan proposamen gehienak asiarak izan dira, agian sentsibilitate berezia daukatelako. Adibidez, asko gustatu zait Manabu Yamanaka argazkilari japoniarra. Horrek 89 eta 103 urteko andreak dokumentatu ditu; budismoan oinarritzen da eta, esan genezake, bere subjektuei duintasuna ematen diela irudi horiekaz. Askotan gizartean baztertuta dauden pertsonak izaten dira, eta berak ikusgarritasuna eta duintasuna ematen die nolabait. Beste alde batetik, Hego Koreako argazkilaria den Daesung Lee ere asko gustatu zait. Horrek oso modu originalean dokumentatu du Mongoliako nomaden egoera. Horiek arriskuan daude, lehorteengatik, eta Leek euren egoera kaskarra dokumentatu du museoetako sinbologia erabiliz. Hala, lan horregaz ikus dezakegu badi-rela dokumentalak lantzeko lengoia berriak. Horiez biez gainera, zelan ez, Euskal Herriko lehenengo emakume argazkilaria den asko gustatu zait, Eulalia Abaituarena. Bere lanak ikusten ditugunean gure ar-



basoek eta familiakoek bisitako lekuak ikus ditzakegu, eta horrek asko hunkitu nau. Berak utzitako lana bikaina da!

Ikus-entzunezko lizentziatura egin zenuen EHU; zerk eroan zintuen mundu horretan murgiltzera?

Betidanik gustatu zait artea eta kultura, eta ikus-entzunezkoak, batez ere. Hala, Arte Ederren ala Ikus-entzunezkoen artean erabakitzeke orduan, bigarrena aukeratu nuen. Egia esan, asko ikasi nuen karrera horretan, denetarik, baina ez nuen gai zehatz batean sakontzeko aukerarik izan. Hori dela-eta, hurrengo urteetan zerbaitetan espezializatzea erabaki eta zinemagintzaren mundutik abiatzea erabaki nuen. Baneien oso bide zaila zena hartu nuena, baina aurrera egiten saiatuko naiz. Nahiko borrokalaria eta burugorria naiz, eta ahaleginduko naiz gustatzen zaidana egiten, nahiz eta erraza ez izan.

Hala, EHUko ikasketak amaitu ostean, Argazki-zuzendaritza ikasi zenuen Zinema Eskolan.

Argazkigintza asko gustatzen zait; baina, argazkilariaen lana oso indibiduala da, eta niri asko gustatzen zait jendeagaz lan egitea. Zinemagintzak hori eskatzen dizu: pertsona bakar batek ezin du film labur bat, dokumental bat edo bideoklip bat berak bakarrik aurrera eraman, talde baten beharra du, halabeharrez.

Zein da argazki-zuzendariaren egitekoa?

Gidoilariak edo zuzendariak ematen dion gidoi lite-

rarioa hartu eta bertan agertzen den istorioa modu bisualean garatu behar du. Bisualki istorioa kontatzeko estilorik onena zein den erabaki behar du. Horrez gainera, askotan, argazki-zuzendaria kamera-operadorea ere izaten da; niri hori da gehien gustatzen zaidana.

“ Tamalez, kultura eta artea beste maila batean daude. Askotan ezereztu egin dira, eta hori arazo bat da ”

Argazkilaritzan eta bideogintzan murgilduta ematen dituzu ordu asko. Arlo horietatik bietatik zein duzu gustukoena? Zergatik?

Bideogintza, talde-lanagatik. Egia da argazkigintza asko gustatzen zaidala eta baditudala proiektu batzuk eskuartearen, baina mugimendua asko gustatzen zait.

Getxophotoko produkzioan lan egiteaz gainera, beste hainbat proiektutan jardun duzu, ezta?

Bai. Berbarako, iaz, *Argi* filmean ibili nintzen. Elorrion filmatutako pelikula da, oso proiektu berezia. *Crowdfunding* bidez garatu zen, eta bertan beharrean egon ginen gehienak Zinema Eskolakoak ginen. Film hori

zapatuan, hilaren 8an, estreinatuko da, beraz, irrikan nago emaitza ikusteko. Lan horretan fokularia izan naiz, hau da, kamera-laguntzaile gisa jardun dut.

Halaber, film labur askotan ibili naiz, spotak egiten eta horrelako proiektuak garatzen; gehienak, tamalez, ezer ere ez kobratu barik. Nire lanik handiena, halaber, duela gutxi Nazca musika-taldearentzat grabatutako bideoklipa izan da. Hori ere laster estreinatuko dugu: urriaren 20an. Hortaz, estreinaldiz beteta heldu zait urria niri.

Modu berean, orain dela urte batzuk aurkezle jarduteko EITBko hautaketa-prozesu batean parte hartu zenuen. Zelan joan zen?

Kar kar. Aukerarik ez galtzeko egin nuen proba. Komunikatzaile-lana ere gustatzen zait, polita da. Hala, saiakera egin nuen eta fase guztiak gainditu nituen, baina hortxe gelditu zen kontua. Berez lan-poltsan nagoela uste dut, baina ez didate inoiz deitu, eta ez nago dei horren zain. Ni nire proiektuakaz aurrera egiten nabil, esperientzia lortzen.

Nazca musika-taldearen bideoklipa grabatzen ibili zara, zuzendari legez. Zelakoa izan da lana?

Oso proiektu interesgarria izan da. Eurak eta gu, ekipo teknikokook, maila berean geunden; hau da, beraiek euren proiektua hasi berri dute, eta guk gure ibilbide profesionala abiatu berri dugu. Ondorioz, oso aberasgarria izan da esperientzia. Taldeak berak eskatu zidan bideoklipa egitea; niretzat aukera paregabea izan zen nire proiektu bat garatzea ezerezetik hasita. Normalean ni laguntzailea izaten naiz, eta hemen ni izan naiz arduraduna, guztiaren erantzulea. Bai, oso polita izan da esperientzia hori bizitzea zuzendari legez. Lortu nuen proiektu honetarako biltzea 30 lagun baino gehiago, guztira; eta babes handia sentitu dut euren-gandik. Ez genuen dirurik, eta inork ere ez du kobratu. Nazcakoek eman ziguten dirua bai, baina guk erabaki genuen diru hori materiala alokatzeko eta gauzatxoak erosteko erabiltzea; produkzioarako, alegia.

Zelan ikusten duzu ikus-entzunezkoen arloa Euskal Herrian?


Tamalez, kultura eta artea beste maila batean daude. Askotan ezereztu egin dira, eta hori arazo bat da. Nik uste dut bere tokia berreskuratzen saiatu behar dugula. Ni hemen gelditu naiz hori delako nire erronka: Euskal Herrian zinemagintza egitea. Azken finean, denok bagoaz, zein egoeratan utziko dugu gure herria?

Hil honetan *Game of Thrones* telesaila grabatzen ibiliko dira Barrikan. Halako «superproduktzio» batean lan egin gura izango zenuke?

Bai gustatuko litzaidake, nahiz eta peoi bat izan, asko ikasten duzulako horietan. Aukera izango banu, bai joango nintzateke, baina ez dit axola. Argi dudana da ezin dugula itxaron besteek gu deitu arte. Nire proiektu txikiak garatzen saiatuko naiz ni beti.

Etorkizunera begira, baduzu proiekturik buruan?

Filmetan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina nire proiektutxoak aurrera eramatea ere. Azken finean, horrek ematen dizu aurrera egiteko motibazioa. Istorioak kontatu gura ditut, nire ikuspegitik. Hala bada, zergatik ez ditut neuk garatuko? Nahiz eta argazki-zuzendaritza ikasi, ez dut baztertzeko zuzendari gisa errepikatzea. Izan ere, asko gustatu ziztzaian esperientzia hori. ◀



Eskualdeko taldeak, Dohan

Sopela-Ugeraga, BioRacer-Elkar Kirolak eta CAF taldeetako txirrindulari gazteak Plumelecean. © ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Munduko Txirrindularitza Txapelketan parte hartuko dute Sopela-Ugeraga, Lointek eta BioRacer-Elkar Kirolak taldeetako bost txirrindularik, datozen egunotan, Dohan.

U ribe Kostako txirrindularitza-taldean lana mundiala dela baieztatu gura duenak beste froga bat izango du datorren astean, Katarreko Doha hirian jokatu den Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketan. Bertan, eskualdeko hiru talderen bost txirrindularik parte hartuko dute, denak Ramón González Arrieta Espainiako Selekzioaren hau-

tatzaileak deituta. Hala, Alicia González eta Alba Teruel Lointekek kideek iraupen-lasterketan jardungo dute, elite kategorian; Sheyla Gutiérrez ere eurakaz ibiliko da. Hitzordua urriaren 15ean da, zapatua, 13:45ean, Euskal Herriko orduaren arabera. Errioxako txirrindulariak Sopolako taldea utzi zuten aurreko denboraldian, AEBetako Cylance-gaz lehiatzeko. González eta

Teruel lehenengo aldiz lehiatuko dira elite mailako mundial batean, aurretik biek parte hartu zuten 2013ko Florentziako mundialean, baina gazte kategorian. Erloju kontrako proban (urriaren 11n, martitzena, 14:15ean), Teruelek ez du parte hartuko.

Txirrindulari gazteak

Dohan, gazte-mailan jardungo dute Sopela-Ugeragako eta BioRacer-Elkar Kirolak taldeko hiru txirrindularik: Sandra Alonsok (BioRacer-Elkar Kirolak), Miriam Gardachalek eta Sara Martínek (biak Sopela-Ugeraga talde-

koak). Eurakaz beste euskal herritar bat izango da, CAFeko Maialen Aramendia. Laurek Europako Txapelketa jokatu zuten pasa den hilabetean, Britainiako Plumelec herrian; baina, lehenengo aldiz izango dira munduko txapelketa batean. Dohan, erlojupeko lasterketan lehiatuko dira datorren astelehenean, urriak 10, goizeko 10:30ean. Era berean, lau egun beranduago, barikuan, iraupen-lasterketa izango dute, goizeko 09:30ean. Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa hilaren 16an amaituko da. ◀

info+: Dohacycling2016.com

Bizkaiko Aizkolarien dema egon da Sopelan

A itzol Atutxak eta Amando Larreak osatutako bikoteak jantzi zuten Bizkaiko txapela pasa den zapatuan, Sopolako Jauregizar plazan egindako Bikotekako Bizkaiko Aizkolaritza Txapelketan. Bikoteak 13 minutu eta 26 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatutako lehiaketan, bigarren postua Larrabetzuko Beñat Lekue eta Aritz Oregirentzat izan zen (6 minutu eta 41 segundo), eta, hirugarrena, Ernesto Ezpeleta Biurri eta Hodei Ezpeleta aita-semearentzat. Beste parte-hartzaileak ondoko hauek izan ziren: Igor Duñabeitia



© BEJKF

eta David Naredo, Aritz eta Aimar Iratzabal, Ioritz eta Jesus Gisasola, X. Garcia Utxu eta Alex Txikon, eta Done Intxausti eta Julen Mendieta. Ekimenak Sopolako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa izan zuen. ◀

Espainiako brontzezko domina Barrikara

D aniela Sánchez Sánchez Barrika Hípika Klubeko amazonak brontzeko domina lortu zuen, Espainiako Modu Klasikoan Hezitako Zaldi Gazteen Txapelketan, pasa den irailaren 25ean. Sánchezek *Stendley Hit* zaldiaz parte hartu zuen Valentziako txapelketan, zazpi urteko zaldien kategorian. Denera, 140 zaldik eta horrenbeste zaldizkok parte hartu zuten. Sánchezek garaipena lortu zuen Valentziako ANCE Kopan ere, iragan ekainean, kategorian berean. Orduan Barrikako klubeko Nekane Pomposo Palenzuelak bigarren postua lortu zuen, *Deja Vu* zaldiaz, Gazte o mailan. ◀

Erandioko Xake Eskola barikuan abiatuko dute

E randioko xakezaleek laster hasiko dute ikasturte berria. Datorren urriaren 14an, barikuan, abiatuko dituzte eta ikastaroak Erandioko Xake Eskolak, horren ardura duen Erandioko Askotariko Kirol Taldeak jakinarazi duenez. Ikastaroak adin guztietako pertsonentzat eta hainbat mailatakoak izango dira: inimizazioa, erdi-mailakoa eta aurreratua. Eskolak 18:00etan izango dira, Astrabuduko anbulatorio zaharrean eta Altzagako lehengo posta-bulegoan. Interesdunek izena eman dezakete telefonoz edo Internetez. ◀

izen-ematea: 944 672 812
Sperandio.info/eus/XakeEskola.php

Sánchez eta Yeregi, txapeldunak



Elkarteen arteko txapelketa etxean lotu zen; Sopelako Peñatxurik irabazi zuen. © EHSF

Garazi Sánchez Ortun surf-lari getxoztarra eta Imanol Yeregui Sasiain zumaiarra dira Euskadiko surf-txapeldun berriak. Pasa den irailaren 25ean jokatu zuten txapelketa, Sopelako Arriatera hondartzan. Bertan, Sara Urresti Caballero eta Jatyr Berasaluce etxeko ordezkariak podiumean sartu ziren.

Emakumeen txapelketaren finalean, Sánchez erraz nagusitu zitzaizen Sara Urresti Caballero sopoloztarrari, Iara Domínguez irundarrari eta Aina Aymat zarauztarrari. Gizonen txapelketan, ostera, Yeregui lehia estua izan zuen Hodei Collazo zarauztarragaz. Apur bat atzerago geratu ziren Jatyr Berasaluce sopoloztarra eta

Ethan Egiguren oiartzuarra. Lehiaketa horrek bat egin zuen Euskal Herriko Surf Zirkuituaren bigarren probagaz. Hala, proba horren jabe ere egin ziren Sánchez eta Yeregui. Zirkuituaren sailkapen nagusiari dagokionez, txapeldun zumaiarra buru da, 2.000 puntugaz. Berasaluce laugarren postuan dago, 1.340 puntugaz. Emakumeen liderra Domínguez da; 1.860 puntu ditu. Hirugarrena da Sánchez, 1.000 puntugaz; Urresti, bosgarren, 730 puntugaz. EHSZren lehenengo proba Donostian jokatu zen, uztailean. Bertan Yeregui eta Domínguez nagusitu ziren. Hirugarren proba Zumaiain egingo da, azaroaren 19an eta 20an; azken olatua abenduan jokatuko da, Mundakan. ◀

Madrildarrak nagusi Goalball-txapelketan

Kirok Egokituaren Euskal Federazioak antolatutako Goalball V. Txapelketa egin zen Itzurbaltza/Romoko Gobela kiroldegian, irailaren 25ean. Goalball.es Madrid Sur taldea nagusitu zen torneo horretan, hiru garaipen eta berdinketa bat lor-

tuta. 2015eko edizioa irabazi zuen Donostiako IK taldea bigarren sailkatu zen. Beste lehiakideak izan ziren Bilboko Hamaika, Arabako Itxaropena eta Valentzia. *Goalballean* helburua da zintzarriak dituen baloia eskuagaz sartzea aurkako taldearen atean. ◀



Ikusmen-urritasunen bat dutenentzako kirola da Goalballa. © KEEF



Asier García domina erakutsi die bizkaitarrei, Basque Team taldeak emandako prentsaurrekoan. Kirolari paralimpiko getxoztarrak (ezkerrean) Rion irabazi zuen zilarrezko domina, saskibaloi-proban. Beragaz batera agertu zen Amador Granados txirrindularia. © BASQUE TEAM

Egun bakarrean erabaki da Presidente Saria

Lehenengo jardunaldian, zapatuan, lerabaki zen Abrako uretan jokatuako bela arineko Presidente Saria. Izan ere, domekan belaontziek ezin izan zuten estropadarik egin, haize nahikorik ez zelako egin. Hala, Amadeo Torrens eta María Alonso nagusitu ziren Snipe mailan; Laser Radial-en, Manolo Rey Baltar geratu zen Tomás Truebaren aurretik; Juan Llano eta Mónica Fernándezek irabazi zuten 420 mailan; Alazne eta Saioa Lasak lorpen bera eskuratu zuten L'Equipe-n; Andoni eta Íñigo Lejarraga FEVA-n nagusitu ziren; eta Juan Olabarri gailendu zen Optimist modalitatean. ◀

Euskal Herriko Superkopa lortu du Leioak, berriro

Leioa Waterpolok denboraldiko lehenengo titulua lortu zuen pasa den domekan, Portugaleten: Bidasoa eta Askartza gainditzeak bermatu ziren faboritoei Euskal Herriko Superkopa jasotzea aurten ere bai. Askartza bigarren izan zen emakume-taldeen artean, Bidasoaren aurka 6-4 nagusitu. Askartzak ez zuen Superkopa lortu ezta gizonetako ere, finalean Nafarroaren aurka 17-6 galdu zuen-eta. Leioa Waterpoloren arabera, «waterpolo-jardunaldi polita» izan zen domekakoa. «Taldea denboraldiaren hasieratik eskaintzen dabiren sentsazio ona» berretsi zuten leioaztarrek. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria





Aldagelatik

ANA
MASA PEREIRO
Kirolzale amorratuak

Lau urterik behin, denok kirolzale amorratuak

Hilabete pasa da Rioko Joko Olinpikoak amaitu zirenetik. Abuztuaren hasieran ikusi genituen munduko kirolaririk onenak euren banderaren atzean desfilatzen, eta paralinpikoen txanda irailean amaitu zen. Lau urte barru izango dugu berriz ere halako ekitaldi izugarria bizitzeko aukera.

Lau urterik behin, abuztuko orduak telebistaren aurrean igarotzen ditugu kirol desberdinetako txapelketak ikusten. Judoa, arku-tiroa, triatloia, gimnasia... Eta, batez ere, atletismoa eta igeriketa. Gero, bi aste inguru pasa ondoren, paralinpikoak: boccia, halterofilia egokitua, igeriketa, balongola...

Denak ikusten ditugu, zenbat eta gehiago, orduan hobeto. Lankide eta lagunaren arteko elkarriketak horren inguruan aritzen dira. Tabernan ere, kafe orduko eztabaidetan, Joko Olinpikoen ingurukoak izaten da aukeratutako gaia. Lau urterik behin, kirol aditu bihurtzen gara.

Aurten 28 euskal kirolari aritu dira guztira Rion. Kirolzaleok euren lehia-saio osoa jarraitu dugu telebista edo internetez. Lau urterik behin, gure kirolarien lanaren lekuko gara. Kirolarien poza nabarmentzen dugu: egun horietako esfortzua, tentsioa, amorrua... Emozio oso biziak. Behin-behineko klasifikazioak eta puntuazio sistemei buruz ikasten dugu, finalak bizitzen ditugu bertan bagina bezala. Lau urterik behin, olinpikoak (eta paralinpikoak) gara denok.

Baina uda eta gero beti dator udazkena. Oporrak eta gero, kirolari olinpikoak lanera bueltatzen dira. Entrenamendu gogorak, gimnasioa, asteburuetako denbora libreari uko egitea... Goi-mailako kirolarien bizitza sakrifizio handietan oinarrituta dago maiz. Baita ikusleona ere, gure neguko errutinara bueltatu behar dugu, eta beste lau urte itxaron behar kirolaz hainbeste gozatzeko. ◀



Elkarrizketa osoa irakur daiteke ANBOTO.ORG eta HIRUKA.EUS atarietan. © MOVISTAR

«Munduko domina bat lortzea daukat helburu»

Jonathan Castroviejo
Katarreko Munduko Txapelketan lehiatuko da, urriaren 9an eta 12an. Ereriko larria izatetik urreagaz amets egitera pasatu da itzubaltzetarra.

JOSEBA DERTEANO BILBAO - ANBOTO ▶

Nork esango zizun otsailean gaur garaipenez berbetan ibiliko zinela?

Martxoan aurreratu izan balidate zein emaitza lortuko nuen handik hile batzuetara, ez nuen sinetsiko. Europako txapelketan urrea irabaztea garrantzitsua da. Sari txiki baten modukoa da.

Fisikoki erabat errekuperatu zara?

Hezetasuna ez datorkit bat ere ondo. Noizean behin, tentsio handiko etapa luzeetan oraindik min izaten dut saman, eta apurtuta izan nuen orno zerbikalaren inguruan. Baina, tira, ez da ia ezer. Ukondoan, ostera, min dezente izaten dut. Kubitu hezurra osatzeko ipini zidaten inplantea kentzeko ebakuntza bat aurreikusita dugu, azaro erdian. Ea ebakuntza eguna laster heltzen den, apur bat deserrosoa da-eta.

Txarto egonda ere, Rioko edo Tourreko hitzorduak buruan zenezkan.

Errekuperazio prozesuan gehien la-

gundu didan pentsamenduetako bat Frantziako Tourrera heltzeko lan egitea izan da. Arin eta ondo errekuperatzen saiatzeko motibazioa izan da. Eta ondo heldu nintzen. Tourra lehiatu baino hamar egun lehenago, Espainiako erlojupeko txapelketan bigarren amaitu nuen. Sasoian nengoen. Baina, zuzendariak dudak zituzten, lesio larri bat igarotako txirrindulari bat Tourrera eramanez ala ez, eta, azkenean, ez nintzen joan. Orduan, ez nekien Riora joango nintzen ala ez; joan baino sei egun lehenago esan zidaten hautatuen artean nengoela. Eta Riotik bueltan, ez nekien Espainiako Itzulira eramango ninduten. Horrela ibili naiz.

Rioko Joko Olinpikoetan lau segundora geratu zitzaizun brontzezko domina. Gustura zaude erakutsitakoagaz?

“**Katarren ni baino 20 kilo gehiagoko aurkarien aurka jardungo naiz**”

Oroitzapen onak ditut. Pozik nago. Garbi dago pena dela orain etxean domina olinpiko bat ez izatea, baina, joan aurretik, sinatuko nuen Rion egindakoa. Begira, iaz munduko txapelketan laugarren amaitu nuen, eta brontzezko

dominatik hiru segundora geratu nintzen; Rion berdina gertatu zait. Amorrurru apur bat ematen dizu, bai, baina erakutsitako konstantziagaz geratzen naiz. Egin ditudan erlojupeko ia denetan lehenengo lauren artean sailkatu naiz. Hori oso garrantzitsua da etorkizunari begira.

Aipatu izan duzu zure palmares opa-roan garaipen handi bat falta zaizula. Europako erlojupeko urrea da hori?

Ez dut uste. Espezialista batzuk falta ziren arren, garaipen garrantzitsua izan da, bai, baina nire helburua munduko txapelketan domina bat lortzen saiatzea izan behar da, eta zergatik ez amestu urreagaz? Badakit aurtengo ibilbidea ez dela nire dohaintzat aproposena, baina 29 urteagaz oraindik badut denbora bete-betean asetuko nindukeen garaipen hori lortzeko.

Esan duzu munduko txapelketako ibilbidea ez dela zuretzat aproposa.

Katarrek ez dauka desnibel txikiarik ere. Ibilbidea erabat laua da. Ez diot niretzat ibilbide txarra denik, baina ni baino hogeiki kilo gehiagoko aurkarien aurka jardungo naiz, eta hori desabantaila bat da.

Noiz joango zara Katarreara?

Urriaren hasieran abiatuko gara, hilaren 9an jokatu den taldekako erlojupekoari begira. Ondoren, banakako erlojupekoa hilaren 12an izango da. ◀

Sudokuak

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

	5		4		1		3	8
				2		4		
			3		7		5	
	2	3		6				
	1				2		4	
		8	7	3				
1					8		2	6
	8	6				5		
								1

9		4	8		2			
6								
	7		9	4	5		6	
				1	6			
	1		3		7			
		2	4					
							5	
					8	3		
		8	2	5		6	1	9

Soluzioak

1	6	8	9	4	2	5	7	3
2	8	9	1	3	5	7	4	6
1	9	4	5	7	8	3	2	6
5	4	8	7	3	9	1	6	2
6	1	7	8	5	2	9	4	3
9	2	3	1	6	4	7	8	5
4	6	1	3	8	7	2	5	9
8	3	9	6	2	5	4	1	7
7	5	2	4	9	1	6	3	8

7	4	8	2	5	3	9	6	1
2	5	6	1	9	8	3	4	7
1	9	3	6	7	4	8	5	2
5	6	2	4	8	9	7	3	1
4	1	9	3	2	7	5	8	6
3	8	7	5	1	6	9	2	4
8	7	1	9	4	5	2	6	3
6	2	5	7	3	1	4	9	8
9	3	4	8	6	2	1	7	5

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Getxo XXXIV. Antzerki Jardunaldiak

Marikixkur eta Hiru Hartzak

antzezlanerako 5 sarrera bikoitz dauzkagu

Urriak 16, domeka, 18:00;
Andres Isasi Musika Eskola (Areeta)



Getxoko Udalaren ekimenez, Glu Glu Producciones taldeak eskainiko duen emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 13a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hauetako batera: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Horoskopoa



Ura

(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Espero zenuena helduko da; baina, bitartean, ez zaitez hain urduri ipini. Ikusiko duzunez, kontu bakoitza bere unean dator.



Otsoa

(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Laster susto ederra hartuko duzu; gaitz fisikorik ez da sumatzen, baina, hala ere, arretaz ibili. Bestalde, zure proiektua aurrera doa.



Adarra

(Otsailak 19-Martxoak 20)

Neke-neke eginda bueltatzen zara etxera eguna amaitzean. Hobe zenuke tartean lo-kuluxkaren bat egitea. Ez egin kasurik «alferrontzi» deituz gero.



Aitzurra

(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aste-akabuko bidaiari batean pertsona ezezagun batez egingo duzu topo. Zuk erabaki beharko duzu zure bizitzan lekua izango duen ala ez.



Hostoa

(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure itxuran aldaketak egin dituzu azken egunotan. Moldeak apurtzen ahalegindu zara eta filosofia horrek lagunduko zaitu, erabiliz gero.



Eguzkia

(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Gastronomia inoiz baino sakonago gozatu duzu aste honetatik aurrera. Egon zaitez prest barne desio batzuk asetzeko.



Garia

(Ekainak 19-Uztailak 18)

Inguruan beti berbetan dabilen pertsona hori dardorduko ez duzu aguantatzen; bakarriketaz bakarriketara dabil. Zure lagunak konponbidea behar du.



Lastoa

(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lagun bati huts egin eta berehala damutuko zara. Pertsona hori mindu ondoren, jokabidez aldatzearen komenentziaz jabetuko zara.



Iratzea

(Abuztuak 18-Irailak 16)

Beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzeak ez zintuzke izorratu beharko. Izpiritu lehiakor hori baretzen ahalegindu eta lasai egon, behingogatik.



Meta

(Irailak 17-Urriak 16)


Osasuna ez duzu zure alde izango, eta ez nabil lruñeko gorritxoaren gainean. Kontuz ibili; kolperen bat hartuz gero, hezurren bat apur dezakezu.



Hazia

(Urriak 17-Azaroak 15)

Gorrotatzen duzun auzokide kontakatilu horregaz borrokatzea ez du merezi; ez alferrik galdu zure denbora. Bidaiatzeko aukera berriak dituzu zain.



Negua

(Azaroak 16-Abenduak 20)

Izaera txar hori kontrolatzen ahalegindu, bestela zeu ere minduko zara azkenean. Kontuak behar den moduan hartuz gero, dena bere onera itzuliko da.

Biotz Alai

Mende erdia belarriak gozatzeko



Aurton 50 urte bete ditu Biotz Alai ahots baxuen abesbatza algortarrak. Besteak beste, 8 eta 15 urte arteko 34 neska-mutileko umeen korua osatu berri dute, taldearen etorkizuna bermatzeko helburuagaz.

KEPA UGARTE MARTIARENA

Anne Etchegoyen abeslari baxenafarraren ahotik «Zorionak zuri» kanta entzutea hunkigarria izan zen Biotz Alai abesbatza osatzen duten abeslari denentzat. Ekainaren 25eko arrasti hartan gertatu zen; orduan egin zuen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldietako bat ahots baxuen koruak, bere izena darioan Algortako plazan bertan. Aurreantzean, abendura bitartean, umeen abesbatza osatzeko lehenengo pausoak ematen dabil Biotz Alai, beste emanaldi batzuk eskaintzeaz gainera; atean utzitako urteei erreposoa egiteaz batera, bere etorkizuna bermatu gura du eta abesbatza algortarrak.

Bariko San Nikolas elizaren gerizpean, 1923an sortutako abesbatza jo daiteke Biotz Alairen aitzindaritzat; garai hartan, ia koru denak lekuan lekuko apaizen ekimenez sortzen ziren. Dirudienez, 1936ko gerra-garaian geldialdia egin behar izan zuten; baina, ostean, gainzatarren ekimenez abiatu zen berriro ere. Juanjo Gainza zuzendaria zela hartu zuen koru-elkarte izaera Biotz Alai, 1966an. Ordura arte, gehienbat, San Nikolas elizan edo udalerrian kantatzen zuten; urte hartatik aurrera, oster, Espainiako

Gaur egun, 55 gizonak osatzen dute Biotz Alai abesbatza; garairen batean, 60 ahots egon izan dira kantatzen.

estatura ez ezik, atzerrira ere bidaiatzen hasi ziren. 1973tik hona, Llangollen (Gales), Paris (Frantzia), Gorizia (Italia), Neuchatel (Suitza), Lisboa (Portugal), Caracas (Venezuela), Buenos Aires (Argentina), Pecs (Hungaria) edo Munich (Alemania) bisitatu dituzte. Gaur egungo Biotz Alai abesbatzaren presidente Joseba Landa Mentxakaren berbetan, «ekonomikoki ez zen batere erraza izan halako bidaiei aurre egitea».


Horrez gainera, politikoki garai nahasiak ziren Biotz Alai sortu zeneko eta osteko lehenengo urte haiek; Francisco Francoren heriotza hurbil zegoen. Besteak beste, «1976an edo», kanta batzuk grabatzea eskatu zion Eusko Jaurlaritzak abesbatzari; hori dela-eta, Pariseraino joan behar izan zuten abeslariak.

«Abesbatzako kideek maila pertsonalean parte hartu zuten grabazio horretan; izan ere, diskoetxe batez eskusiban jarduteko hitzarmena geneukan. Horrez gainera, grabatu behar genituen abestiak ez ziren edozelakoak; besteak beste, «Eusko gudariak» eta «Eusko Abendaren Ereserkia» grabatu genituen», dio Landak. *Single* formatuan saldu ziren disko horiek.

Urteak joan, urteak etorri, jendarteak eboluzionatzen zuten erritmora aldatzen joan da abesbatza, hala uste du Biotz Alairen presidentek: «lehenengo urteetan, euskal abesti aldarrikatzaileek osatzen zuten koruaren errepertorioaren zatirik handiena; horixe bera entzun gura baitzuten herritarrek. Politikaren zama lausotzen joan zen ahala, ordea, beste estilo batzuetako kantak abesten hasi ginen; berbarako, erlijio-musikak garrantzi handia eduki du beti guretzat». Bere iritziz, zuzendari bakoitzak ere «bere kutsua» eman dio abesbatzari.

Sariak, diskoak eta emanaldiak

José Ánjel Serrano produktorearen gomendioz erabaki zuen Anne Etchegoyen abeslari baxenafarrak Biotz Alai abesbatzari elkarlanerako dei egitea, bere abestiak Hego Euskal Herrian ere ezagutzera emateko; horrek entzute handia eman dio koru algortarrari, azken aldian. Hala ere, Biotz Alai lortutako arrakastak ez dira gaur egunera mugatzen. Berbarako, 1970ean lehenengo saria lortu zuen Torreviejako (Alacant) Habanera Lehiaketan; urte bi beranduago,



Biotz Alai Begoñako Aste Koralean, Juan José Gainzaren zuzendaritzapean. © BIOTZ ALAI

1972an, bertoko polifonia-sariketa irabazi zuen Algortako ahots baxuen abesbatzak. Geroago etorriko ziren Neuchatel-eko (Suitza) Nazioarteko Lehiaketan lortutako urrezko domina (1985) eta Euskadiko Aho-tsak lehiaketako lehenengo saria (1979). Hala ere, ezin aipatu barik utzi, Biotz Alai abesbatzak ez zuela urrun lortu lehenengo arrakasta: 1969an, Tolosa-ko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa irabazi zuten, ahots baxuen atalean. Bestalde, Bizkaiko Abesbatzen Elkarrekin gorazarre egin zion taldeari 1998an. Hori gutxi balitz legez, Athletic Club futbol taldearen 100. urteurrenean abesteko aukera eduki zuen, Ainhoa Arteta sopranoagaz batera. Azkenik, 2013an, Aixegetxo saria eman zioten Biotz Alairi, *Kultur ondarea* izeneko sailean.

Bestalde, nabarmentzekoak dira eskaini dituzten zenbait obra ezagun, berbarako: Luigi Cherubiniren (Florentzia, Italia, 1760 - Paris, Frantzia, 1842) *Requiem in re minore* obra abestu zuten, 1985ean, Bilboko Orkestra Sinfonikoagaz, Sestaoko Orfeoia gaz eta Deustoarrak abesbatzagaz. Zuzeneko diskoa grabatu zuten egun hartan. Gainera, Bizente Goikoetxearen *In Honorem Inmac. Concep. B.M.V. Missa* lana ere eskaini zuten, 2003an, Euskal Kamerata taldeagaz.

Bost disko dauzka Biotz Alai, guztira. Iaz, Deustoarrak taldeagaz eta Sestaoko Orfeoia gaz Bilboko Coliseo Albian emandako kontzertua berrargitaratu zuen abesbatza algortarrak; RNE irrati-kateak grabatu zuen 1979an, lehenengoz.

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Biotz Alai abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak berbagai, egitarauaren saio nagusia izatea gura ez zuten arren, Anne Etchegoyen Algortara ekartzea zen taldeko arduradunen ametsetako bat; izan ere, abeslari baxenafarragaz emandako kontzertuetan ez dute koruko kide denek parte hartu. «Abesbatza osatzen dugun denokaz kantatzea proposatu genion eta ideia polita iruditu zitzaion», aipatu du Joseba Landa Mentxaka Biotz Alai abesbatzaren presidentek. Horrez gainera, Madrildo Gazte Abesbatzagaz kontzertua ematea «zoragarria» irudi-

tu zaie Algortako koruko kideei; madrildar abeslarietako askok 25 urte baino gutxiago dauzkatelako; oster, Biotz Alai kideek 55 urte dauzkate, batez beste. Urteurrenaren egitaraua biribiltzeko, ohi den legez, Gabonak heldu baino lehenago egingo dute Bazkideen Kontzertua; abenduaren 17an, zapatuagaz, Algortako San Nikolas elizan. Emanaldi horretan, Biotz Alai Txiki abesbatzak lehenengo agerraldi publikoa egitea espero dute.

Bihotz Alai Txiki

Umeen koru bat egiteko ideia «ez da gauza berria» Biotz Alai abesbatzan, Ricardo Martín Ariñoren esanetan: «Aspalditik gabiltza horretaz berbetan Zuzendaritza Batzordean zein entseguak amaitu ostean, San Nikolas elizaren ondoko apaiz-etxearen beheko aldean daukagun txokoan batzen garenean». Biotz Alai Txiki abesbatzaren koordinatzaile-arduraduna-

Biotz Alai Txikiren lehenengo emanaldia Bazkideen Kontzertuan egiten ahaleginduko dira, abenduaren 17an.

ren iritzi, orain arte ez da inor ausartu «martxan ipini egingo dugu» esatera, «lan handia eskatzen duelako». Oster, Juanlu Díaz-Emparanza gaztearen etorrerak beste bultzada bat eman dio Biotz Alai Txiki sortzeko ideari, eta abesbatza osoari berari. Díaz-Emparanzak 25 urte dauzka eta urtarrilean hartu zuen ahots baxuen koruko zuzendari-ardura. Bere ibilbide profesionalari dagokionez, Leioa Kantika Korala taldean abestu du eta Donostiako Orfeoi Txikiaren zuzendaria izan da. Oraindik, ikasten jarraitzen du: Abesbatzen Zuzendaritza egiten dabil Musikenen.

Kontuak hala, abuztuan idatziz aurkeztu zioten umeen abesbatza sortzeko proposamena Zuzendaritza Batzordeari, eta bertoko kideek «ezin izan zioten

ezezkorik eman», Martínek dioenez. Biotz Alai Txiki abesbatza 8 eta 15 urte arteko neska-mutilek osatuko dute; nagusien taldean ez bezala, neskatoek ere parte hartu ahal izango dute. Izan ere, txikien taldearen koordinatzailearen arabera, «ez luke inolako zentzurik izango bakarrik mutilentzako abesbatza bat egitea; bizi garen garaiagaz ez dator bat». Hala ere, bere iritzi, ez da gauza bera nagusien taldea gizonaek bakarrik osatzea: «ez zen matxismoagatik erabaki Biotz Alai ahots baxuen edo gizonaek abesbatza abestalde izatea; baten bati bururatu zitzaion, musika koralarren barruan dauden modalitateetatik bat delako», dio Martínek.

Hala, pasa den zapatuan, urriak 1, egin zituzten Biotz Alai Txiki abesbatza osatzeko entzunaldiak, Algortako San Nikolas elizaren ondoko apaiz-etxearen beheko aldean daukaten txokoan; nagusien koruak bertan entseatzen du-eta. Daborduko, 34 umek osatzen dute taldea; gehienak, neskak dira. Horrek ez du esan gura ezin izango denik ume gehiago aurkeztu; mugarik ez diote ipini abestalde osa dezaketen ume-kopuruari; «entsegu-gelaren azalera zenbateraino eman dezakeen bakarrik», Biotz Alai Txikiren koordinatzailearen arabera. Are gehiago, urte-akaburako 40 kide izatea espero dute.

Entseguak zapaturo egingo dituzte neska-mutilek, 16:30etik 18:00etara; urriaren 15ean izango da lehenengo saioa. Hasieran, abesti errazak ikasiko dituzte, bat edo bi ahotsetakoak, eta hiru eta lau ahotsetako kantakaz hasiko dira gero, apurka-apurka. Gainera, abesti horiek oholtza gainean zelan interpretatu ere erakutsiko diete umeei. «Seguruenik, koreografiakaz lan egingo dugu; izan ere, Juanluren asmoetako bat da obra musikalak interpretatzea», dio Ricardo Martínek. Biotz Alai Txiki abesbatzaren estreinaldia abenduaren 17ko Bazkideen Kontzertuan egin gura lukete. Hala ere, abestaldeko kideek argi daukate entseatzeko egun gutxi izango dituztela neska-mutilek. Juanlu Díaz-Emparanza zuzendariak ahaleginak eta bi egingo ditu neska-mutilek San Nikolas elizan abes dezaten, egun horretan, bat edo bi ahotsetako kanta batezag bada ere. ◀

Anne Etchegoyenagaz, Algortan. © BIOTZ ALAI



Lehen/Orain

Leioako udaletxe ingurua



Erretratua

Kontxi Zuazubizkar Arrieta

Algortako bizilaguna eta dendari erretiratua



Lehen berba euskaraz oparitu die 13 urtez Kontxi Urdaitegira sartu diren bezeroei. Jubilatuta, dendaren eta langileen etorkizuna ziurtatzeaz arduratu da.

Poz-pozik dago Kontxi Zuazubizkar Arrieta Algortara orain dela 35 urte etorri izanaz. Elgoibarren bizi izan zen ordura arte, seme biakaz; sendiaren ilepaindegian egiten zuen behar, amak eta ahizpak legez. Ramón senarrak urtebete zeroan Algortan beharrean, bere familiak eskaintako lanean, langabezian lotu ostean. Irribarrez ekarri du akordura Kontxik orduko asmoa: «etorri zen urtebeterako eta jubilatuta egin da enpresa horretan». Hala, lauak batu ziren Algortan. 35 urte beranduago, bilobak ere baditu Zuazubizkarrek, San Nikolas ikastolako ikasleak, «eta beste txiki bat edukitzekotan gaude». Urte horietan guztietan, hainbat lanetan jardun du algortar berriak, baina gustukoena Kontxi Urdaitegiaren salmahaiaren atzekoa izan du. Hasieran, erronkak beldurra eragin zion, baina Bilboko Zazpi Kaleetako lagun batzuek animatu zuten eta erakutsi zioten lanbidea. Bezeroen batek kontrakoa aholkatu

bazion ere, hasieratik lehenengo berba euskaraz egin du urdaitegian, «nire hizkuntza euskara delako», eta ez da damutu. Euskaraz bizitzeko oasi txiki bat izan da denda hainbatentzat, eta euskaraz gutxi dakitenek ere esan izan diote: «Kontxi, zuk egin euskaraz, ikasteko». Euskaragaz batera, kalitatez-

“Orain, erretiratuta, euskararen alde lan pixka bat egiteko asmoa daukat”

ko bertoko produktuak izan ditu ikur. Iaz, jubilatzean, denda zabalik mantentzen arduratu zen; eta lortu du. Pozik dago Oihana ugazaba berriak ere lehenengo berba euskaraz egiten delako, filosofia berari jarraitzen diolako eta lanpostuak mantendu dituelako. Orain, besteak beste, «euskararen alde lan pixka bat egin» gura du Kontxik. ◀

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua